

TOKI KOM

2012ko maiatza | 115. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria

*Burdinazko Garrikoa,
1937-2012*



LAGATZU EGUNA

ZAMUDIO 2012

Ekainak 30 zapatua

Ekainak
29
barikua

20:00 MUSIKA KALEAN,
EKHIRA BEGIRA
Taldeagaz
Fernan eta Rafi
tabernen arteko
plazan

9:30 KIROL MARATOIA eskoletan. Parte hartzeko izena
emon behar da aldez aurretik
IZENA EMOTEKO: 94.452.34.47 telefonora deitu edo
lagatzu@lagatzu.org helbidera idatzi, edo Lagatzuko kideei esan

11:00 TXIRRIN BIRA herriko ume eta gurasoen eskutik
EUSKAL PRODUKTUEN azoka-erakusketa Leizaola plazan

12:00 HAMAIKETAKOA Leizaola plazan
JOALDUNAK
SCALEXTRICAK ETA MOTOR JOKOAK, Talleri kalean Zamudio Racing
Elkartearen eskutik

13:00 KALE-JIRA-BIRA-DANTZA-POTEOA
Bertoko eta bertsolariak - Hiru bat eta Gazte Alai

15:00 HERRI BAZKARIA, eskoletan. 15 € nagusientzat, 10 € umeentzat
Txartelak herriko denda eta tabernetan salgai. Azken eguna
ekainaren 25a, astelehena

17:00 TALDEKA KANTAU, Taberna Ibiltariagaz, eskoletan
ARTZAIN JOKO ETA JOLASAK Kulki taldeagaz

20:00 ERROMERIA, JOXPA taldeagaz eskoletan

nik
bai!



neuk
be bai!



© kukuxumusu
+ bokart.com

Zamudioko
talde
eta herritarren
ezinbesteko
laguntza be
euki dogu



Animatu eta parte
hartu koadrileagaz
Jantzi zaitez antzinako
euskal erropakaz!

E
U
S
K
A
L

J
A
I
A



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguskiza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Sara Gandara, Itsasne Zubiri, Jon Rozadilla, Juanjo Ortiz, Bestorrene, Xabier Diaz, Jabi Agirre, Oihana Astobietta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Patxi Abasolo



16 Literaturia



25 Sondikako jaiak

- 4 Eritxia**
- 5 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Gautxorietarrak, iluntzearen zain**
- 12 Gurean izan da... Patxi Abasolo, historialaria**
- 14 Ziortza Zarraga, atleta**
- 16 Literaturia**
- 18 Burdinezko Gerrikoa**
- 22 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 24 Herria martxan! Martxa herrian!**
- 25 Sondikako jaiak**
- 28 Argia Pujana, musikaria**
- 30 Txori Herri Sondikako txokoa**
- 32 Rubén Glera, txirrindularia**
- 34 Teknologia**
- 35 Aikorrizketan... Euskararen autobidea**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**



**Inmobiliaria
ETORKI**

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Móvil: 607 32 35 53 48160 DERIO

**MARMOLGINTZA
GOYO**

SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERIAK



Ugaldeguren 1 ind. 10-8 mabea
48160 Berio, Bizkaia
T: 94 454 82 93 - Fax: 94 454 50 63



**KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA**

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56



Zu zara nagusia

Zifrek dena esaten dute. 12 zenbakia, esaterako, zaleak dira. Futbol talde baten jarraitzaileak. Euren bihotzeko taldeagatik dena ematen dutenak.

Urrun iritsi da Athletic Europa Leaguen, eta Athletic bezain urrun iritsi dira zaleak ere, Europan barrena. Hori gutxi ez, eta Errege Kopako finalera ere iritsi da Athletic aurtien. Eta, beste behin ere, jarraitzaileek erabateko babesak eskaini diote euren taldeari.

Egin dezagun denboran atzerako bidaia: Oviedo final hamaseirenetan. Final zortzirenetan, Albacete. Mallorca, Joaquin Caparros aspaldiko ezagunaren Mallorca, final laurdenetan. Mirandes edo, askok deitzen dioten bezala, EuskoMirandes, Carlos Pouso bizkaitarraren taldea, finalaurrekoetan. Hori guztia, Espainiako Kopari dagokionez. Kanporaketa guztiak gaindituta, Bartzelona ahalguztiduna zuten zain Marcelo Bielsaren mutilek finalean. Eta, dagoeneko, badakigu zer egin duten. Athleticek ez du ametsa betetzerik izan. Barça nagusi izan da. Baina 12 zenbakiak ez dio animatzeari



SARA GANDARA
(Kazetaria)

utzi. Madrilera, 50 bat mila zale joan ziren. Vicente Calderonen, baina, 20.000 inguru sartu ziren. Gainerakoek, baita Bartzelonako jarraitzaile batzuek ere, Athletic Hirian, zale zuri-gorrien eremuan ikusi zuten finala. Bizkaian ere pantaila erraldoiak jarri zituzten hainbat herritan. Zorarena erabatekoa zen, eta ez zen gutxiagorako. San Mamesen, futbolaren festa. Sei pantaila erraldoi, eta 40.000 jarraitzaile

le inguru. Ez al dira datu nahikoak Athleticeko zaleak zintzoak direla erakusteko?

Eta, Europa Leagueri dagokionez ere, beste horrenbeste. Eman ditzagun datu batzuk. Final zortzirenetan, Old Trafforden, 8.000 athleticzale elkartu ziren Manchester Uniteden aurkako joanekoa ikusteko. Gelsenkirchenen, Schalke 04ren kontrako final laurdenetako joanekoan, 1.000. Lisboaraino, finalerdietan, 4.000 joan ziren, Jose Alvaladen Portugalgo Sportinggen kontrakoaz gozatzeko.

Eta, Bukaresten ere, jarraitzaile zuri-gorriek ez zuten hutsik egin. Arena Nazionala estadioan, 11.000 bat eztarrik erakutsi zuten zer esan nahi duen 12 zenbakiak. Baita ondo erakutsi ere. Eta aurreko kanporaketetan bezalaxe, kaleak ondo giro-tzeaz ere arduratu ziren, gizatasunez. Tamalez, azken gau hartan, aurkariak ametsa zapuztu zuen.

Taldeak Europa Leagueko finala ere galdu du, baina txapeldunorde izatea, bai Europan eta bai Espainiako Kopan ere, ez da batere marka makala.

Eta 12 zenbakia, zeu bai, zeu zara nagusia.

Euskal Astea, arrakastatsua Zamudion



Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak Euskal Astea antolatu zuen maiatzean, urtero egiten duen moduan. Horren haritik, hainbat ekitaldi egin ziren: hitzaldiak, kontzertuak, irteerak, ikuskizunak... Elkartearen arabera, 1.000 lagunek hartu zuten parte ekitaldietan eta, horren ondorioz, oso pozik agertu dira. Jende gehien bildu zuen ekitaldia Pirritx eta Porrotx pailazoen saioa izan zen. "Arrakasta ziurtzat ematen dugu haiek aritzen direnean", adierazi dute antolatzaileek. Era berean, Txorierriko zenbait lagun batu ziren Zamorako apaiz-kartzelari buruzko hitzaldian.

Gainera, umeei zuzendutako ekintzek ere oso erantzun ona izan dute. Haietako

batean, baserriak erakutsi zizkieten txikiei eta gurasoei, eta guztiek poz-pozik amaitu zuten ibilbidea. Aranoltza auzora hurbildu ziren eta abereak, kortak eta baserrian lana zelan egiten den ikusteko aukera izan zuten bertan. "Umeak gero eta hiri-kumeagoak dira eta ez dituzte geure betiko baserriak ezagutzen. Eta guraso askori gauza bera gertatzen zaie".

Zamudioko euskara elkarteak jarraituko du gure hizkuntzaren aldeko ekintzak egiten, eta ekainaren 30erako Lagatzu Eguna antolatu du. Besteak beste, azoka, musika, herri-bazkaria eta kirol-maratoia egingo dira jai-egun horretan. Aurreko egunean ere, ekainaren 29an, musika entzun ahal izango da kalean.

Talleri upeltegia inauguratu da

Eguaztenean jendetza handia batu zen Telleri upeltegiaren inaugurazio-ekitaldian, Morgan. Haien artean, Irene Pardo Nekazaritzako foru diputatua, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta txakolin sektoreko ordezkariak izan ziren. Gonbidatuek topa egin zuten proiektuak etorkizun oparoa eduki zezan. Zinta moztu ostean, bisitaldia egin zen instalazioetatik eta kopaua eskaini zen. Talleri upeltegia Txorierriko eta inguruko 16 ekoizleek jarri

dute martxan, eta txakolingileen eta mahastizainen Bizkaiko Lehenengo kooperatiba da. Orotara 22 hektarea dute eta, 2011-2012 uztaldiari dagokionez, 1.500 litro txakolin beltz eta 110.000 litro txakolin zuri ekoiztu dituzte. Proiektua 2007an hasi zen mamitzen, helburu bi zituela: alde batetik, produktuaren kalitatea, banaketa eta merkaturatzea hobetzea; eta bestetik, ekonomikoki errentagarria den ekoizpen egitura lortzea.



LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikatzak, osakorrak
Auzokoen kumuntariak
Mantentze garbi-ikatzak
Bulegoak eta lokalak
Olinpiko amariako garbiketa
Ikastetxeak
Zabon bilaketa

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaladaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98
Fax 94 454 14 18

Mungialde etorbidea, 25
48160 DERIO

harategia - urdaltegia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

lurrindegia MAMEN mertzeria

Goiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

t i k t a k

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postria
ogia
edaria

9€

Bestorene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Nire Autoocasion

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

Euskara, eskutik eskura

Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak kanpaina berria jarri du martxan: "Euskara, eskutik eskura". Ekimenak tabernetan eta dendetan euskararen erabilera sustatzea du helburu, eta modu egokia ere bada herritarrek erosketak Txorierrin bertan egin ditzatela bultzatzeko. Kanpainarekin bat egin duten merkatariek eta ostalariek puzzlearen irudia duten esku-orriak banatuko dituzte bezeroen artean. Azken hauek, erosketa bat euskaraz egiten duten bakoitzean, puzzlea betetzeko pegatina-pieza bat eskatu beharko dute. Saltoki bakoitzak puzzlearen pieza mota bakarra edukiko du, eta bezeroak herriko saltoki ezberdinetara joan beharko dira puzzlea osatu ahal izateko. Orotara bederatzi pegatina-pieza eskuratu beharko dira. Puzzlea osatu ostean, esku-orrian eskatzen diren datuak bete, eta hura udaletxeetan atondutako



kutxetan sartu beharko dute. Parte-hartzaileen artean euskarazko GPS bat zozketatuko da herri bakoitzean. Kanpainak ekainaren 25era arte iraungo du eta bezeroek nahi beste puzzle egin ahalko dute. Zozketak hurrengo asteetan egingo dira, eta irabazleen izenak saltokietan ipiniko diren kartelen bidez jakinaraziko dira.

Bestetik, aipatu beharra dago Euskara Zerbitzuak 350 menu baino gehiago biltzen dituen hiztegia prestatu duela. Hiztegia Txorierriko taberna eta jatetxe guztiei dago zuzenduta, eta horiek euren eskaintza euskaraz egin dezatela du helburu. Besteak beste, lehenengo eta bigarren platerak, postreak, edariak, pintxoak eta ogitartekoak jaso dira hiztegian. Era berean, tabernetan eta jatetxeetan ohi-koak diren elkarriketatxoak batu dira lanean. Hiztegia paperezko formatuan zein euskarri informatikoan egin da. Kopia bat eskuratu nahi duenak telefono honetara egin dezake deia: 94 448 00 00 (Pello).

Uritarra Larrabetzuko Futbol Eskolak Futbol 7 Txapelketa antolatu du hirugarren aldiz, kimu kategorian. Ekimen solidarioa da eta aurten batzen den dirua Garmitxa Larrabetzuko elkarteari emango diote. Elkartea erabateko elikagai-intolerantzia duten umeei laguntzeko sortu zen. Hesteetako gaixotasun arraroa da hori eta gaixoak oinarritzko formula baten bidez elikatu behar dira, euren gorputzak ez duelako inolako elikagairik onartzen.

Txapelketa ekainaren 8tik 10era bitartean izango da Errebale futbol-zelaian. Barikuan, arratsaldeko 6:30ean, lagunarteko partida jolastuko dute Bizkaiko Selekzioak eta Txorierriko Selekzioak. Zapatuan, sailkapenerako partidak jolastuko dira goizean zein arratsaldean, eta herri bazkaria ere egingo da. Domekan,

Garmitxaren aldeko futbol jaialdia

finalaurrekoak eta finalak izango dira goizeko 9:30etik aurrera. Txapelketan futbol talde hauek hartuko dute parte: Santutxu, Gasteizko Aurrera, Bermeo, Kabiezeseko Gazteak, Eibar, Barakaldo, Uritarra, Lauro ikastola, Danok bat, Genika, Etorki, Indautxu, Athletic, Zamudio, Baskonia eta Iturrigorri KE.

Bestetik, Uritarra Futbol Eskolak zozketa ere antolatu du. Txartelak euro batean jarri dituzte salgai eta orotara hiru sari emango dira: telebista digitala, pertsona birentzako bazkaria eta Athleticen kamiseta sinatuta. Zozketa ekainaren 10ean egingo dute txapelketako finalaren atsedendaldian. Sarituak Uritarraren webgunean argitaratuko dira. Dohaintza anoni-



moa egiteko, dirua sartu edo transferentzia egin daiteke kontu korrante honetara: 3084 0090 29 6400005600.



HARATEGIA

ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO



leizola plaza 9 - behe (zamatza)
94 455 79 62



ESTILISTA
EVA ARDINES

Asteartea - Ostirala: 9etatik-15etara
Larunbata: 9etatik-14etara

Uribe Plaza, 1 - Behe: 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19: (Aurreko txanda)



Porrota, 66 bidearen erronkan

Iñaki Castañeda txirrindulari elbarritua Txirrin txirrin Zamudioko taldekidea da, eta maiatzean hasi zen 66 bidea egiten, Estatu Batuetan. Errepideak ekialdeko eta mendebaldeko kostak lotzen ditu. Iñakik abentura hasi eta errepidean bederatzi egun eman ondoren, ezin izan zuen bukatu. Izan ere, arazoak izan zituen Txema Eizagirre kidea-rekin, eta utzi behar izan zion erronkari. "Oztopo batzuk izan genituen: beroa, matxurak, haizea kontra... Txemak ezin izan zituen arazo horiek guztiak gainditu eta bakarrik utzi ninduen, berak bakarrik aurrera jarraitzen baitu. Berak ez zuen elbarritu

batekin joateko behar den mentalizazioa", esan digu Iñakik.

"Oso ilusionatuta nengoen hasieran, baina ezin da izan. Etsita nago, 66 errepide egiteko gauza naizela jakin badakidalako, baina zer egingo diogu! Hurrengo batean izango da". Kide egokia lortzen badu, berriro ekingo dio abenturari. "Berriz saiatzeko prest nago, baina ez da aurrean izango. Alde batetik, dirutza delako; eta bestetik, eguraldia ez delako egokia. Dena dela, laster izan beharko da, 60 urte ditudalako eta denborak aurrera egiten duela-ko".

Larrabetzufest

Ekainaren 9an Larrabetzufest jaialdia egingo da. Ekimena Patxi kooperatiba-sozietateak babestu du, eta Larrabetzuko Udalaren eta tabernarien laguntza jaso du. Gaueko 21:00etan poteoa egongo da Karramarro taldearekin, eta 23:30etik aurrera, Belako eta Itziarren Semeak taldeen kontzertuak izango dira plazan. Kaña 1,50 eurotan jarriko da salgai. Bestetik, aipatu beharra dago autobusa aterako dela Mungiatik, Txorierritik, Sopelatik, Urdulizetik eta Algortatik. Hura erabiltzen dutenek hiru euro ordaindu beharko dute. Izena ematea patxi.coop webgunean edo facebooken egin daiteke.

Eskola berria, Zamudion

Maiatzean eskola berria inauguratu zuten Zamudion. Eskolak Haur eta Lehen Hezkuntzako 241 ikasle hartzen ditu gaur egun, eta aurreko ikastetxeak zituen leku-arazoei konponbidea emateko eraiki da. Azpiegitura Arteaga inguruan altxatu da eta 6.475 metro karratu ditu, eskola zaharrak zuen azaleraren bikoitza. Hogei ikasgela, kirol-kantxak, gimnasioa, musika-gela, laborategia, auditorioa eta 1.200 metro karratuko patio estalia ditu, besteak beste. Gainera, orain arte Zamudiok Haur Hezkuntzan baino ez zuen linea bikoitza (gela bi maila bakoitzeko), eta proiektuak aukera ematen du linea bikoitza zabaltzeko Lehen Hezkuntza osoan. Udalak 6,6 milioi euro ipini ditu beharretan.

Iñaki 94 455 65 08 **Jabi** 94 452 14 31

Magalarte Txakolina

ARTXABALETAK HORTEN ETXAKOAK

75 cl. 10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina Denominación de Origen

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubieta

Orains-zerroa & Horta-esteka
HORTZ INPLANTEAK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
HARRAK ZEIN ORTODONTIA

Dr. Aroka kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urtibe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

GAMINIZ JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

San Tomás, (Zamudio)

Ekainak 15: 18:00: Bolanderak; 20:00: Idi-probak; 22:00: Saiheskia, tripakiak eta sardina-jana; 22:30: Erromeria, Nakar taldearekin.

Ekainak 16: 16:00: XXIII. Mus-arin Txapelketa; 17:00: Umeentzako jolasak; 18:00: Tortilla Txapelketa; 21:00: Tortillak aurkeztea; 21:30: Sariak banatzea; 23:00: Disko-dantza.

Ekainak 17: 09:00: Zamudioko bost ermitetatik ibilaldia. Irteera, San Tomás ermitatik; Paella eta Sukalki Txapelketak; 13:00: Meza; 13:30: Paellak eta Sukalki kazolak aurkeztea; 18:00: Dantzen agerraldia, Hiru bat taldearen eskutik. Ostean, sariak banatzea; 19:00: Trikilekuren emaldia.

Ekainak 18: 12:00: Meza.

Jaiak loratuz

Udaberriarekin batera jaiak loratzen dabiltza gure auzo eta herrietan. Ekainak zenbait ospakizun ekarriko dizkigu



San Joan

Ekainak 23. Zamudio 21:30: Sua; 22:00: Txixi-burruntzia eta kontu kontalaria. **Lezama:** 20:00: Afari-merienda, musika, trikitilariak eta dantzariak...; 22:15: Sua eta kantaldia. **Loiu:** 21:00: Lehenengo jai-tsiera, argi-zuziekin. Txistulariek girotua; 21:30: Txokolatada; 22:00: Bigarren jai-tsiera, argi-zuziekin. Dantza eta antzezpena; 22:15: Sua; 22:30: Dj Xaibor. **Larrabetzu:** 22:00: Antzerkia, Zubibarrin. **Derio:** 19:00: Dantzak, txixi-burruntzia, sua, fanfarrea, txokolatada.

San Antonio, (Larrabetzu)

Ekainak 13: 18:00: Puzgarriak; 20:00: Kalejira; Garmitxa elkartearen aldeko kopaua.

Gorpuzti, Erandiogoikoa

Ekainak 3: 08:00: V. Mendi martxa; 10:30: Kalejira; 10:45: Nekazaritzako azoka txikia eta animaliak; 11:00: "Klasikoak 15" autoen erakusketa; 11:30: Umeentzako puzgarriak; 12:00: Poney-ak, umeentzat; 12:00: Euskal dantzak: Goi Alde, Uztargi eta Trabudu taldeak; 14:00: Saiheski erreka; 14:30: Mendi martxaren amaiera; 14:45: Otzara zozketatzea.

Ekainak 7: 12:00: Meza; 12:40: Oho-rezko aurrekua eta kopaua; 19:00: Txupina eta jaien hasiera; 19:05: Kalejira, buru handiekin; 19:30: Txinbera Txapelketa (izena ematea: 30 minutu lehenago, txosnan); 19:45: Xake Txapelketa; 21:00: Herri afaria (txartelak, tabernetan salgai); 23:00: Dj-a eta gau pasa.

Ekainak 8: 18:00: Kalejira; 18:30: Tiragoma Txapelketa (izena ematea: 30 minutu lehenago, txosnan); 19:00: Futbol-jai Txapelketaren finala; 19:00: Kick boxing-

aren erakustaldia; 19:30: Puzgarriak, elizako plazan; 21:00: Futbol-jai Txapelketaren sariak ematea; 21:30: Saiheski erreka; 22:00: Abesbatzak; 00:00: Berbena, Lisker taldearekin. Ostean, Dj-a eta gau pasa.

Ekainak 9: 11:00: Futbol Txapelketa (beteranoak); 12:00: Kalejira; 13:00: Euskal dantzak; 15:00: Herri bazkaria (txartelak, tabernetan salgai); 15:30: Ludoteka eta umeentzako jolasak; 16:30: Eskola-txirringularitza; 17:00: Kopaua, San Jose egoitzan; 17:30: Mus Txapelketa (izena ematea: Goiko landas tabernan); 18:00: Koadrilen-tzako herri kirolak, elizako plazan; 19:00: Igel-toka Txapelketa (izena ematea: 30 minutu lehenago, txosnan); 19:30: Ergometroa; 22:00: Sardina jana; 00:00: Berbena, Akerbeltz taldearekin. Ostean, Dj-a eta gau pasa.

Ekainak 10: 12:00: Meza eta umeen jaunartzea; 16:00: Poker Txapelketa.



BIZKAIA IRRATIA **Txorierrin**

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Mihiluze lehiaketaren finala

Ekainaren 1ean, "Mihiluze Txorierri" lehiaketaren finala izango da Derioko Kultur Birikan. Saioa arratsaldeko 6etan hasiko da eta hura Oihan Vega ETBko aurkezleak zuzenduko du. Finalean Txorierriko hiru bikoterik onenak arituko dira norgehiagoka. Bikoteek zazpi probari egin beharko diete aurre. Irabazleek hiru lagunentzako Warner Bros Parkera bidaia bana jasoko dute saritzat. Hotel batean gau bi pasatzea eta parkerako sarrerak ere badaude sariaren barruan. Bigarrenek hiru lagunentzako Iparraldera bidaia bana jasoko dute saritzat. Larraunerako tren-txartelak, Biarritzen gau bat ematea eta Biarritzeko akuariumerako sarrerak sariaren barne daude. Hirugarren postuan lotzen direnek Senda Viva Nafarroako Natura-parkera bidaia bana jasoko dute saritzat. Hau ere hiru lagunentzako bidaia izango da, eta haren barruan gau bat hotel batean pasatzea eta parkerako sarrerak daude.

Mihiluze "Txorierri" lehiaketa Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak martxan jarritako ekimena da. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleei dago zuzenduta, eta gaztetxoek eskola orduetatik kanpo euskaraz goza-

tzea eta hizkuntza lantzea ditu helburu nagusitatzat. Azaldutakoaren arabera, helburuok bete dira. Horrela, bada, txapelketak ikusmin handia sortu du gaztetxoentzako artean eta orotara Txorierri osoko 57 bikotek hartu dute parte han. Maiatz osoan zehar ibili dira herri bakoitzean kanporaketak egiten. Finalurreko bi ere egin dira.



Pilotari lezamarrak, Bizkaiko txapelak

Oier Hormaetxea gazte lezamarrak Bizkaiko Txapelketa irabazi du benjamin mailan, Leioako Aimar Astigarragarekin batera. Bederatzi urteko pilotariak Lezamako Pilota Eskolan jolasten dute. Monitoren esanetan oso bikote bikaina osatzen dute. "Oso urte ona egin dute: neguan bigarren gelditu ziren Uribe Kostan egindako txapelketan, eta geroago Bizkaiko Txapelketa irabazi egin dute. Sekulako poza hartu dute, eta garaipean aurrera jarraitzea animatuko ditu".

Jubilatuen Eguna, Lauroetan

Tradizioari eutsiz, Jubilatuen Eguna antolatuko dute Lauroeta Loiuako auzoan, ekainaren 10erako. Egurdiko 12etan meza egongo da eta ostean, kopaua eskainiko da. Bazkaria Aurregoiti jatetxean egingo dute, eta bazkalostea Xabier Amuriza eta Mikel Mendizabal bertsolariek girotuko dute. Trikitilariak ere egongo dira. Bazkariak 30 euro balio du eta izena ematea jatetxean bertan egin daiteke, edo telefono hauetako batera deituta: 94 453 17 18 (Iñaki) eta 94 453 37 86 (Juantxu).

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, 1

Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)



Bai Euskarari

urrats biziak



zuzendakaria: Aitor Etxebarria
www.bai.euskarari.org



Sakelako telefonoa: 945 87 73 00
NEINVER pol. - Ebeizate kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
✆ + faxa: 94 452 25 87
patxiscoop@patxi.coop



Teknologi Parketako Elkarteak 804 E - 07 B
94 481 79 21 48600 Derio, Bizkaia
953 06 366 estudio@maklaarkitektura.com
620 060 14 www.maklaarkitektura.com



Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

Peñasko arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Emakumezkoen futbola sustatu nahi du Arteagak eskualdean



Arteaga Derioko Emakumezkoen Futbol Eskolaren koordinatzaileak dira Manuel Franco "Pintxe" eta Julen Ibarluzea. Haiek adierazitakoaren arabera, azken bost urteetan oso ahalegin handia egin dute, neskak eskolara erakartzeko eta emakumezkoen futbola bultzatzeko. Jokalaririk egon ez, eta urte txar bi pasatu dituzte, baina ahaleginak saria izan du eta gaur egun badira hiru talde eskolan: umeak, kadete gazteak eta erregionala; eta 60 neska dira eskolan. Harago joan nahi dute, eta eskualdean emakumezkoen futbola batzea hartu dute erronkatzat orain. "Badira hamaika urtetik beherako neskato asko talde mistoetan jokatzeko dutenak. Baina esperientziak diosku, adin batera heltzen direnean, albo batera uzten dutela futbola, batetik mutilekin aritzen jarraitu nahi ez dutelako eta, bestetik, emakumezkoen talderik ez dagoelako.

Guk Txorierriko neskak batu nahi ditugu Arteaga eskolan, eta hainbat kategoria osatu, haien adina edozein dela, kirol honetan jokatu ahal izango duten ziurtasuna eduki dezaten". Hala, 1999tik 2003 arte jaiotako neskatoentzako jardunaldiak antolatu dituzte ekainerako. Nahi dutenak etor daitezke astelehen eta eguaztenetan, arrastiko 5,30ean, Arteagako futbol zelaira eta bertan entrenatu. Era berean, 696 95 52 38 telefono zenbakira dei daiteke (Tano). "Emakumeen futbolak aurrera egitea nahi badugu, batu egin behar gara. Txorierri ozenki entzun behar da".

Igoera

Bestetik, aipatu beharra dago denboraldi honetan nagusien taldea Lehenengo Erregionalera igo dela. Oso lorpen handia da, taldea erregional kategorian lehenengo aldiz ibili delako aurten. "Pozik baino

pozago gaude. Orain dela bost urte gurekin hasi ziren jokalariek daude orain taldean, eta emaitza ikusi da azkenean". Esan diguten bezala, oso jokari onak dira eta batzuk Athleticekin entrenatzen ibili dira edo oraindik ere badabilta. Sub 18 Bizkaiko selekzioak ere lau jokalariri deitu die. "Baina haien artean dagoen harremana eta lotura da garrantzitsuenak". Neskekin lau entrenatzaile dabilta: Zurdo, Jaime, Javi eta "Pintxe". "Gure helburua jokalariei futboleko aritzeko aukera ematea da. Emaitzak direla-eta, geure buruari mugarik jartzen ez badiogu ere, etortzen dena onartu egingo dugu". Nagusien taldeari dagokionez ere, prest daude jokari berriak hartzeko. Horren haritik, esan digute diru-laguntza bat jaso dutela Derioko Udaletik. "Hari esker lortu da neskak eta mutilak futboleko baldintza berdinetan aritu ahal izatea".

BAR RAFI
ESPEZIALTATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejero
Oiz Kalea, 5 T: 94 406 08 08
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobila: 607 406 613

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>


BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA
Ruben
Lehendakari Leizola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)



Gautxoriatarrak, iluntzearen zain

Parrandazaleak gautxoriak badira, eta Txorierrin bizi direnak txorierritarrek, argazkikoak derrigorrean izan behar du gautxorierritarra. Koadrilako lagunekin asteburu ezberdina pasatzea erabaki eta Bizkargi eguneko bezpera parrandan eman du aurtan. Dibertsioaz gain, Bizkargi gailurretik Txorierrin esnatzen ikusteko aukera izan du gazteak. Sekulako esperientzia, erabat gomendagarria!

Testua eta argazkia:
Jon Goikouria Larrabeiti
<http://www.flickr.com/photos/jongoikoh>



Eskualdeetako
Bertsoari Txapelketak
2012

Uribe Butroe
www.bizkaia.kotxa.pelketabiz

bertsozaleak

BFA CFB

bbk

Sondika Urtia

aikor

Sondika
Ekainaren 9an, zapatua
Kultur Etxean, 17:30ean

Jone Larinaga
 Asier Legarreta
 Ekain Landa "Txepain"
 Molen Amerabar
 Galdier Bilbao "Txapi"
 Beñat Vidal
 Iñaki Larrazabal
 Ortiz Garitano
 Inazio Vidal
 Peru Vidal
 Aitor Esteban
 Mikel Goienaga

“Gaztelak konkistatu gintuen, baina ez dugu amore eman”

PATXI ABASOLO | historialaria eta 1512-2012 Nafarroa Bizirik elkartearen kidea

Eztabaida handia dago Nafarroan, bertan duela 500 urte gertatutakoari buruz. Batzuek diote Nafarroak askatasun osoz egin zuela bat Gaztelarekin; 1512-2012 Nafarroa bizirik elkartekoen ustez, ordea, indarrez egindako inbasioa izan zen. Patxi Abasolo historialaria eta elkartearen kidea da, eta horren inguruan entzun ahal izan genion Sondikan, Altzora elkarteak antolatutako hitzaldian.

t: Gaizka Eguskiza / a: Itsasne Zubiri

500 urte pasatu dira Nafarroa Gaztelako parte bihurtu zenetik. Anexioa ala inbasioa? Zer gertatu zen eta zer da kontatu dena?

Konkista izan zen, eta ez gara hori esaten dugun bakarrik; Gaztelako idazleek izenburu hau jarri zioten kronikari: *Crónica de la conquista de Navarra por las tropas del Duque de Alba*.

Zergatik egiten duzue orain aldarrikapena? Inbasioa duela 500 urte gertatu zen...

Esaten da Nafarroa Espainiaren zatia dela, Nafarroak berak hala erabaki zuelako, baina hori ez da egia. Inbasioa zokoratzen da, baita horrek ekarri zituen hildakoak eta sufrimendua ere. Atxikimendua ez zen librea izan eta eztabaida historiografikoa eztabaida politikoa bihurtu da. Batzuek diote aspaldiko kontua dela, baina zer da “aspaldian”? Historia oso luzea da eta batzuentzat, adibidez, Gernikako bonbardaketa duela gutxi gertatu zen, eta beste batzuentzat, ordea, aspaldi-aspaldian. Historia guk geuk egiten dugu, norberaren ikuspuntuaren arabera.

Zure ustez, Nafarra oso ezberdina izango litzateke inbasiorik egon izan ez balitz?

Auskalo! baina argi dago garai hartan zapuztu egin zela herri horren ibilbide instituzionala, politikoa... Duela 500 urte historiaren trena galdu egin genuen.

Eta aldarrikapen horren haritik sortu zen 1512-2012 Nafarroa bizirik elkartea...

Duela 4-5 urte hemengo kulturaren aldeko hainbat historialari bildu ginen. Gure ustez, konkistari buruzko eztabaida historian adituen gunetik atera, mahai gainean jarri eta kaleratu behar zen. Eta 2008an egituratu zen herri mugimendua. Horrela, gaur egungo nafarrei aukera eman nahi genien haien iragana eta etorkizunaren gaineko hausnarketa egiteko. Gaur egun guztiok gara Nafarroa bizirik: guztira milaka lagunek, hainbat erakundek eta elkartek eta 100 udalek hartzen dugu parte mugimenduan.

Eta oso pozik gaude, eremu guztietara ailegatzea genuelako helburu.

Zuen proposamena herritarrei zein erakunde publikoei zabaldu diezue.

Nolako erantzuna jaso duzue?

Kalean, izugarria izan da erantzuna. Udalek apurka-apurka bat egin dute gure proiektuarekin. Gainera, izugarrizko laguntza eman digute hitzaldiak eta ekitaldiak prestatzeko orduan. Bestelako erakundeekin ere ibili gara harremanetan:



2011n, Nafarroako Legebiltzarrean egon ginen; baina Espainiakoan ere. Beraz, leku guztietan izan dute gure proiektuaren berri eta gutaz hitz egiteko aukera.

Elkarteak euskal abertzalea da, baina nafarren gehiengoak, eta Nafarroako zein Espainiako gobernuak ez, aldiz. Politikariek arazorik jarri dizute?

Identitateaz ari gara eta gaia nahiko korapilatsua da. Gure iragana ezagutuz gero, identitatea ere ezberdina izango litzateke. Gure kontra doazenek beldur digute, eta ez dute argudiorik. Azken 500 urte hauetan manipulazioa egon da, baina nire ustez, txarrena isilaraztea izan da, hau da, eskoletan ez da gure historia ematen. Guk eskatzen dugun gauza bakarra eztabaidatzeko eta hitz egiteko aukera izatea da. Hitzaldietara hainbat lagun etorri dira, leku batzuetan herriko %90, alegia. Eta ez pentsa, oso kopuru anitza izan da, nafar independentistak ez ezik, gainontzeko alderdi politikoetatik ere hurbildu baitira. Nafarroan oso errotuta dago nortasun nafarra.

Urteurrenaren haritik, nolako ekitaldiak zabilazte prestatzen?

Zenbait hitzaldi eta ekimen egin ditugu azken lau urteotan: gazteluen eremuak berreskuratzeko egitasmoa jarri dugu martxan; 60 artistarekin egin dugu lan Arte 1512 webgunean, Nafarroa arte arloan ere badagoela bizirik adierazteko; aldizkaria banatu dugu Nafarroa Garaiko etxeetan... Baina gure harribitxia *Konkistak*, 500 urte liburua da. Horretan irakurketa labor eta atsegina eskaini diegu gai honen inguruan jakin nahi duten guztiei.

"Ez da egia Nafarroa Espainiaren zatia dela, Nafarroak hala erabaki egin zuelako"

"Independentistak ez ezik, ideologia guztietakoak ere etorri dira hitzaldietara"



Etorkizunari begira, beste ekitaldi batzuk ere antolatu dituzue...

Bai, eta bereziki bi aipatuko nituzke. Alde batetik, ekainaren 16rako egun osoko ekitaldia antolatu dugu. Atxikimendua adierazi diguten erakundeak eta herritarrek batuko dira eta manifestazioa egitea baino, Ibilaldi Nazionala egingo dugu. Ekitaldia Gazteluko plazan bukatuko da, eta egun osoan zehar egongo dira ekimenak, adin guztietako lagunek ondo pasatzeko: herri bazkaria, animazioa kaleetan, kontzertuak.... Bestetik, Albako Dukearen armada uztailaren 25ean sartu zen Iruñean, eta egun sinbolikoa da 500. urteurrena ospatzeko. Nafar bandera egun horretan haga erdian edota dolu-xingolarekin jartzeko gonbitea egin dugu, eta zenbait ekitaldi ere egingo ditugu.

1512-2012 Nafarroa bizirik du ize-na elkarrekin. Epemuga dago jarrita ize-nean, 2012. urtea, alegia. Eta 2013an, zer?

Udazkena inflexio-puntu izatea nahiko gertuko, garai horretan egin baitzen erresuma berreskuratzeko lehenengo saiakera. Gero gehiago etorri ziren. Hori omendu nahi dugu, eta bide batez bukatutzat emango dugu inbasioaren kontua. Horren ordez, independentzia berreskuratzeari buruzko eztabaida jarriko dugu mahai gainean. Etorkizunari begira, mugimenduaren kideok erabakiko dugu noiz arte luzatu nahi dugun aldarrikapena, go-goaren arabera. Dena dela, mugimendua argi utzi du 1512an Gaztelak konkistatu gintuela, baina ez dugula amore eman.

LIBRERIA SONDIKA LIBURUDENDA
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak, prentsa, aldizkariak, liburuak, papergintza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 10 77 / 48150 SONDIKA (Bizkaia)

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA
94 452 1616
94 452 1624
Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelagoiti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)
Restaurante JANA JARTETXEA
Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)
SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nafar Pedregal Gata, 317
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Urrunera begira dagoan emakumea

t/a: Itxaso Marina

Atletismoan gazte-gazterik zala hasi zan, eskola garaian, irakasle batek bultzatua. Diskoa eta pisua aukeratu zituan diziplinatzat, atletismoaren barruan. "Ez dakit, gustau jatan eta, gainera, oso ondo pasaten neban jenteagaz eta entrenamenduak egiten. Lagun asko ginan hasieran, baina batxilergora ailegau ginanera-ko, sei baino ez ginan lotu. Jarraitzea erabagi neban neuk". Txapelketa ofizialetan 16 urte zituala hasi zan parte hartzen. Garai hatan Zornotza taldeagaz aritzen zan; eta hori desagertu zanean, Bidezabal Durangoko taldeagaz.

Bizkaiko markarik handiena dau disko diziplinan: 43 m eta 44 cm; eta pisu diziplinan: 12 m eta 70 cm

Ziortza Zarraga Euskadiko txapelduna da disko diziplinan. Loiutarra disko (kilo 1) eta pisu (4 k) jaurtitzalea da, eta kirol hori praktikau barik urte batzuk emon ostean, orain dala gitxi hasi da barriro egiten. "Hobby" moduan dino berak. Halanda be, hobbyak titulua ekarri deutso.

Ziortza, urteetan, ohiko parte-hartzailea izan da Euskadiko eta Bizkaiko txapelketetan. Emaizta onak lortu ditu lehia- ketetan eta, bere kategoriaren barruan, lehenengo zortzien artean egon da beti. "Bizkaiko onena izan naz urte askotan, eta jarraian. Era berean, Bizkaiko markarik handiena dot disko diziplinan: 43 m eta 44 cm; eta pisu diziplinan: 12 m eta 70 cm. Eta ez dago nik baino jaurtiketa gehiago egin dauen kirolaririk". Espainia-ko txapelketan be askotan izan da, baina ez dau dominarik lortu. "Lorpen handiena unibersidade garaian izan zan. Unibersidadeen arteko Espainiako Txapelketan brontzea lortu neban".

Entrenatzaileak itxi eutsan beragaz aritzeari, eta Ziortzak bere kabuz jarraitu eban entrenamenduak. Baina behar-eran hasi zan, txandaka, bizkarreko arazoak azaldu ziran... eta dana korapilatu zan apur bat. "Kirola praktiketeari itxi arren, lagun asko dodaz mundu honetan dabil- zanak, eta ez dot inoz kontaktua galdu.

Txapelketetara joaten jarraitzen neban, ikusle moduan, eta pix-



*Ez dago berak
baino jaurtiketa
gehiago egin
dauen kirolaririk*

*Unibersidadeen
arteko Espainiako
Txapelketan brontzea
lortu eban, bere
garaipenik handiena*

kanaka-pixkanaka barriro etorri jatan gogoa". Diskoa eta pisua orain dala lau urte hartu ditu barriro, tarte luzean gordeta izan ondoren. "Entreneteagaitik eta kirol apur bat egiteagaitik izan da. Bidezabal taldeetik deitu deuste hareekaz aritzeko, jentearen beharra dabelako. Baietz esan deutset, baina hobby moduan egingo dodala azaldu deutset, entrenamenduak nasaia hartuko dodazala".

Apur bat gehiago

Izan be, entrenamenduak astean bost edo sei aldiz egiten zituan lehen. "Nahiz eta gaixorik ibili. Derrigorrean egin behar zan eta kitu. Orain, barriz, ahal dodanean egiten dodaz eta buruko mina badot, ez noa entrenetera". Baina onartzen dau, txapelketetara joaten danean, bere buruari esaten deusala gehiago entrenau beharko ebal. "Apur bat gehiago behintzat! Orain dala aste batzuk txapelketa batera joan nintzan, beharretik atera barria, lo egin barik, euria zan, hotz egoan... eta han zer demontre egiten ari nintzan pentsau neban. Baina ederto pasau neban gero, droga antzekoa da niretzat".



Edozein kirolarik zaindu behar dau jaten dauena; Ziortzak aitatu dau ez daue-la inoz egin. Eta asteburu asko galdu dituala. "Txapelketak domeka goizetan egiten diralako. Zapatuetan, beraz, goizetik joan behar izaten neban etxera. Baina ez eutsan inporta lehen, eta ez deust inporta orain, atletismoan lagun asko nitualako, eta ditudalako. Primeran pasaten dogu!". Txapelketen dinamikan barriro sartu bada be, argi dau ez dala Estadu mailan lehiatuko. "Entrenau barik ibili nazen urteek eragina euki dabe nire

sasioan, eta dagoaneko ez dot hain urrun jaurtiten. Momentuz, Bidezabal taldean nago, hareei mesedea egiteagaitik. Bestetik ez". Kirolzale amorratua da Ziortza, eta aukera dauean bakotxean, kirol ikuskizunen batera hurbiltzen da. Berea gitxi batzuren kirola da eta honelako diziplinei bultzadea emon beharko litxakiela uste dau. "Ikusten dodanaren arabera eta lagunek kontaten deustenaren arabera, gero eta jente gitxiago animaten da kirol hone-etan aritzera. Are gitxiago, emakumeen gainean aritzen bagara".

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Olar Kales, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragolti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Literaturiatik Euskal Herrira

Ekainaren 1etik 3ra bitartean literatura kalera aterako da Larrabetzun, eta horretarako, berbea, dantza, poesia, musikea, antzerkia... erabiliko ditu hedatze-bidetzat. Literatura euskera hutsezko literaturaren agertokia da eta aurten laugarren aldiz egingo da. Larrabetzu zein Txorierriko mugak gainditu eta topagune bihurtu da Euskal Herri osoko irakurle, idazle eta argitaletxeentzat.

Besteak beste, Literatura egitasmoak helburu honeek ditu: urteko lehen sei hilabeteetan argitaratutako euskerazko liburuak solasaldietan hizpide izatea, euskerazko literatura ikusgarri egitea, herri-tarrak literaturak adierazoteko dituan genero zein formatu guztien jakitun egotea, euskeraz idazten dabena idazleek irakurleak hartu-emon zuzena izatea, eta literaturarako zaletasuna bultzatzea. Halan, Larrabetzuko alde guztietatik arnastuko dau literatura hiru egunean zehar. Liburuaren aurkezpenak, antzezlanak, mahai-inguruak eta musika ikuskizunak egingo dira, eta euskeraz plazaratzen dabena argitaletxeek erakusleihoak ipiniko dabez plazan. Estepan Urkiaga *Lauaxeta* idazleak protagonismo berezia eukiko dau aurtengo ekimenean. *Lauaxeta: ez zuten poeta fusilau* musika eta poesia buztartzen dituan ikuskizuna ekainaren 1ean egingo da. Han hainbat lagunek hartuko dabe parte: Gari, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Anje Duhalde, Ane Zabala eta Edorta Jimenez, esaterako. Horrezaz gainera, idazleak Gernikan atxilotu ebanean jantzita eroan gabardinea erabili dabe Literaturiaren aurtengo edizinoa igarteko kartelean.

Literatura azokaren aurreko egunetan be ekitaldiak izan dira Larrabetzun. Beste batzuen artean, edadekoek kontautako ipuinak grabatu eta hareen emonaldiak eskaini dira. Era berean, Book-trailer lehiaketari jarri da martxan Tximitx Derioko euskerazko alkartearen eskutik. Bestalde, egitaraua Larrabetzu eta Txorierriko mugak gainditu eta argitaletxe batzuek liburu barriak aurkeztu dabez Donostian. Durangoko Azokaren haritik, Askara zikloa sortu da. Lau mahai-inguruk osatutako ekimena da hori eta euskal kulturgintzaren inguruan hausnarketarako gune barria zabaltzea dau helburu. Lehenengo mahai-ingurua Larrabetzun izango da maiatzaren 31n.



Antolatzaileak

Literatura Literatura Eskolaren baitan sortutako ekimena da. Literatura Eskola orain dala bederatzi urte jarri zan martxan Larrabetzun, sustatzaileek euskerazko literaturaren zein munduko literaturaren gainean gehiago ikasi eta ezagupenak alkartruketea helburu ebela. Azaldutakoaren arabera, urte honeetan 250 lagun eta 55 bat hizlari pasatu dira eskolatik, eta 70 gai euki dabez hizpide. Gainera, lehenengo hiru urteetan eskolak Larrabetzun izan baziran be, Euskal Herriko herrialde guztietan izaten dira gaur egun.

“Literatura mundua eta bizitza ulertzeko beste bitarteko bat dala uste dogu, eta hizkuntzaren lanketarako tresna izan daitekeala ahaztu barik; batez be eukiak lantzeari emon gura deusagu garrantzia. Euskerazko literatura ezagutu, gorde eta zabaltzeko ahaleginean ezinbestekoa da eragile guztion alkarlana”. Halan, bada, Literatura ekimenaren antolatze beharretan herriko hainbat alkarte eta talde be badabilz Literatura Eskolakoakaz batera: Udala, liburutegia, Arrekikili euskera alkarte, Hori bai gaztetxea, Txinpasmentegi gurasoen alkarte, Gupide alkarte, Larrabetzu.org blogariak eta Uritarra futbol eskola.

Han "Zergatik ez da ikusgarria euskal kultura hedabideetan?" gaia izango dabe hizpide. Saioa arratsaldeko 7:30ean hasiko da Anguleri kultur etxean. Beste saioak Azpeitian, Donostian eta Gasteizen antolatuko dira. Emaitzak Durangon kaleratuko dabez.

Ekimena euskal lurralde osora zabaltzeko literatura.org webgunea indartuko dabe, eta bertan informazio orokorra emongo dabe egitasmoari buruz eta parte hartzeko moduei buruz. Blogak, twitter, facebook eta abarreko erremintez be baliatuko dira. Gainera, egitasmoa interneten bidez zuzenean ikusteko aukerea egongo da, eta edozein personak edozein lekutan dagoala jaso ahal izango dau Literaturian gertatzen danaren barri. Zuzeneko emisioa lehen aitaturako webguretik egingo da.

*Lauaxeta idazleak
protagonismo berezia
eukiko dau
aurtengo ekimenean*

*Ekimenari literatura.org
webgunearen bidez eta
gizarte-sareen bidez
jarraitu ahalko jako*

Egitaraua



Ekainak 1, barikua

–10:00: *Idazlea zeu zara, irakurtzen dozulako* umeentzako antzezlan, Anguleri kultur etxean.

–22:00: *Lauaxeta: Ez eben poeta fusilau* ikuskizuna. Plazan.

Ekainak 2, zapatua

–10:00-11:30: Euskal Herriko irakurle taldeen arteko mahai-ingurua, 111 Akademiaren gidaritzapean: "Nork erakusten deusku zer irakurri? Zeren arabera hautatzen ditugu liburuak?"

–11:30etik aurrera: Liburu barrien aurkezpenak.

–12:00: Literaturiatxua (umeentzako egitaraua).

–12:00-14:30: Liburuen aurkezpenak, Anguleri kultur etxean.

–15:00: Bazkaria, eskolan.

–18:00: Literaturiatxua: *Leihotik munda* antzezlan, Hori Bai gaztetxean.

–18:30: *Xentimorik gabe* antzezlan, plazan.

–20:30: Xabier Montoyaren emonaldia, plazan.

–23:00: EH3 kolektiboak Koldo Izagirreren *Teilatuko lizarra* liburuiko letrekin osatutako hip hop emonaldia. Hori Bai gaztetxean.

Ekainak 3, domeka

–10:00-11:30: "Idazlearen eta irakurlearen artean, itzultzailearen itzala" mahai-ingurua.

–12:00-14:30: Liburuen aurkezpenak, Anguleri kultur etxean.

–12:00: Literaturiatxua (umeentzako egitaraua).

–15:00: Herri Bazkaria.

–17:30: Bertso-trama literarioa, plazan. Igor Elortza eta Jon Maiaren eskutik.

–18:00: Literaturiatxua (umeentzako egitaraua).

–19:00: Poesia errezitaldia, Hori Bai gaztetxean. Iñigo Astiz, Ione Gorostazu, Urtzi Urkizu, Ainhoa Unanue eta Eric Dicharry.

–20:30: Mugaldekoak taldearen emonaldia, Hori bai gaztetxean.

Oguiza
Hortz Klinika
Kirurgia eta implantak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuritzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzoiaren tratamenduak
Odontologia kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak
Anguleri emparantzia, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890

URAS
Estetika eta masajea
Aita Pabai Ugaldere, 14 beheko
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Peluteria
Estetika
94 455 81 44
Anguleri 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia

Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20

SARRIKOLA
OGITEGIA
Euskal pastela
Basemiko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Batalioi Zelta (CNT-AIT-Anselmo Lorenzo Fundazioaren artxiboa)



Nazionalak, Larrabetzuko plazan

Harresiaren azken taupadak

Eusko Jaurlaritzak Burdinazko Garrikoa egiteko agindua emon eban, tropa faxistek Bilbo eta haren ingurua hartzeko modurik izan ez daien. Azpiegiturearen kontrako erasoak 1937ko ekainaren 11n hasi ziran Gaztelumendin, eta egun bi geroago lortu eben garrikoa gainditzea. Hirurogeta hamabost urte beteko dira aurtien.

t: Itxaso Marina

Errepublikaren aurka egindako estatu-kolpearen porrotak Gerra Zibila ekarri eban 1936ko uztailean. Matxinatuek oso azkar egin eben aurrera Euskadin. Mola jeneralaren tropak Nafarroatik sartu eta irailerako Gipuzkoa osoa eben hartuta. Kolpe militarra arrakastatsua izan zan Araban eta, testuinguru horretan, Euskadiko fronte errepublikanua Bizkaian finkatu zan urriko lehenengo egunetan. Eusko Jaurlaritzak azpiegitura defentsibo bat egin eban, Bilbo faxisten esku geratu ez zedin. Beharrotan 15.000 lagun inguruk hartu eben parte, gehienbat emakumeek eta adinekoek. Eta ha eskura zituen baliabide urriakaz egin eben. Azpiegitura Bilbo inguratuko eban defentsa-sistemea izatekoa zan, baina Iñaki Berazategi kazetariak azaldutakoaren arabera, erasoak hasi zirenerako, azpiegitura ez egoan artean amaituta. Eta hormigoizko bunkerak eregi baziran be, gune batzuetan lubaki-lerroak baino ez egozan, alanbrez, enborrez eta zakuz babestu zituenak. "Beharren zuzendaria Goikoetxea Oriol izan zan, bere ideologiaren kontrako tal-



GureGipuzkoa.net | Santa Kurtze ermitako hondakinak, Bizkargi mendi tontorrean © CC-BY-SA: Indalecio Ojanguren



GureGipuzkoa.net | Mendizaleak, Gaztelumendin © CC-BY-SA: Indalecio Ojanguren

dean lotu zan militarra. Ikuspuntu militarretik, azpiegitura akastuna egin eban eta, gainera, frankisten taldera otsailean pasau zan barriro, beragaz defentsa-sistemen planoak eroan zituala". Beraz, militarrek ondotox ezagutzen zituen fortifikazioaren ahuleziak, eta eurentzat ez zala oso oztopo handia izango. "Burdinazko garrikoa, izatez, frankistek jarritako izena da; azpiegituraren jatorrizko izena hau da: Bilboko defentsa-hesia. Baina azkenean haren jaube egingo zirala baekienez, aurkari indartsua bazan moduan aurkeztu eben, medaila ipinteko".

Hasiera batean, matxinatuek Madril okupatzea eban helburutzat, halan atzerriko herrialdeek onarpena eukiko ebela uste ebelako. Uriburuari, ha hegoaldeko fronte errepublikanutik bakartzeko asmoz, hainbat aldiz eraso baeutsien be, ez eben lortu. Franco matxinatuen liderra bihurtu zan ordurako. Haren estadu nagusiak, Madril hartzea ezinezkoa zala ikusita, beste helburu bat hartu eban: Bizkaian sartzea. Alde batetik, Errepublikako hegala hultzat ebelako; eta bestetik, probintziak eban industria ahalmenagaitik. Soldaduak, artilleria... hasi ziran Bizkai inguruan

Oroipen-ekimenak

Aurten 75 urte beteko dira Burdinazko Garrikoa apurtu zanetik. Larrabetzun hainbat ekimen egingo dira urteurrenaren haritik. "Ha guztia gogora ekarte gura dogu, gerra eta haren ondorioei lotutako gaiak oraindino nebulosa antzeko baten dagozalako. Irakaskuntzan be ez dira behar bezala trataten. Era berean, omenaldia egin gura deutsegu Gerra bizi eta historia ofizialek alboratuta izan diran guztiei. Eta arrete deitu, hau bezalako gaiak, azterketa zein aztarna arkeologikoen kontserbazino arloan, jasaten daben itxikeriaren gainean" aitatu dau Berazategik. Loiu eta Lezaman be ekitaldiak antolatu dira ekainerako.

LEZAMA

(Lezama Bizirik, Oxangoiti eta Gurasoen alkartearen eskutik)

Ekainak 1, barikua

–Erakusketa, Oxangoiti tabernan.

Ekainak 8, barikua

–Hitzaldia eta dokumentala, Oxangoiti tabernan. Merienda-afaria.

Ekainak 9, zapatua

–Bisita, Bilboko museora: Maleta mexikarra erakusketa.

Ekainak 12, martitzena

–Ekimen sinbolikoa, Burdinazko Garrikoa defendatu eben gudari eta milizianoen omenez. Gaztelumendi ton-torrean.

Ekainak 17, domekea

–Bisita, Gaztelumendi-Urrestiko lubakiei. Kopaua.

Ekainak 29, barikua

(Udalak antolatua)

–20:00: *Zerutik sua dator* dokumentala, Uribarri Topalekuan. Ostean, gerra bizi eben lezamarren testigantzea.



GureGipuzkoa.net | Lubakiak, Bizkargi mendi tontorrean © CC-BY-SA: Indalecio Ojanguren

LOIU

(Loiu lastana alkartearen eskutik)

Ekainak 15-17

–Argazki eta dokumentuen erakusketa, erakusketa gelan.

Ekainak 17, domekea

–11:00: Mezea.

–11:30: *Ez negar egin* dokumentalaren emonaldia, elizan.

–13:00etatik aurrera, plazan: dantzen agerraldia, Loiu abesbatzaren emonaldia, gudarien eta Gerraren ondorioak pairatu zituen loiuertarren omenezko monolitoa estalgabetzea.

–Herri bazkaria.

LARRABETZU

Ekainak 6, eguaztena

–Gerra, umeei kontauta. Eskolako 3. zikloko umeei zuzenduta.

Ekainak 8, barikua

–*Tristísima ceniza* nobela grafikoaren aurkezpena.

Ekainak 10, domekea

–12:00 (plazatik abiauta): Gerran hildako milizianoei omenaldia Bolunburupean.

Ekainak 11, astelehena

–*Zerutik sua dator* dokumentala, Andra Mari eleizan.

–Sabin, Arana-Goiri batailoian ibilitako gudari larrabetzuarrari omenaldia.

Ekainak 12, martitzena

–“Euskadi bonbapean” hitzaldia, Jon Irazabal historialariaren eskutik.

Ekainak 13, eguaztena

–Gaztelumendi abesbatzaren emonaldia, Goikoelexalden.

Ekainak 14, eguena

–“Errusiarrak Euskadin”, Mikel Aizpuren eskutik.

Ekainak 15, barikua

–827 km sin retorno eta *El cementerio de las botellas* dokumentalak.

Ekainak 17, domekea

–Burdinazko Garriko aztarnetatik ibilpidea.

* Oharra: berbaldiak eta emonaldiak Anguleri kultur etxean izango dira, zehaztutakoak izan ezik.



bonodekor
Bizkaiko Merkataritza Sustatzeko Kanpaina,
CECOBIK, AMUBIK, Bizkaiko Foru Aldundiak eta
BBK-k bultzatua.

%20_{ko} deskontua

kalitate handiko koltxoietan, somierretan eta atsedebesaulkietan.

- 5 euroko **bonodekor** txartela BBK-aren orotarako kutxazainetan erosita, eta edozein kreditu/kargu-txartela erabilita.
- Soilik **bonodekor** bereizgarria duten produktuetan.
- 2012ko maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartean.



SUITE DELUX
MARKA ESKLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

Leioa La Avanzada 80, (Bilborako norabidea) 944 316 516	Derio Derioko Seminarioa, 944 545 147	Eibar Errebal 19, 943 202 784
---	--	--



www.SUITDELUX.com



GureGipuzkoa.net | Bilbo. San Rokeko lubakiak (Artxanda) © CC-BY-SA: Indalecio Ojanguren

kokatzen, eta martxoaren 31n jo eben erasora, Durango bonbardeau eben egunean. Kontuan hartu behar da militarren taldea Errepublikaren alde burrukatzen ebenen taldea baino indartsuagoa zala. Lehenengoek heziketa militarra eben, eta bigarrenetariko gehienak lanbide zibiletan aritzen ziran gerra hasi baino lehen. Armei eta tropei jagokenez be, frankistek errepublikanuek baino baliabide gehiago eben, eta, era berean, janariak urri ziren errepublikanuen artean.

Oztoporik ez

Eusko Gudarosteak batailen eraginez kaltea jaso baeban be, frankistek ez eben erreza izan eta erresistentzia handiagaz topau ziran. Nolanahi be, mendien orografiaz baliu eta azkenean lurraldera sar-tzea lortu eben. "Beste taktika bat hasi ziran erabilten: bonbardaketak, Durango-koa eta Gernikakoa kasu. Horreek ez egozan helburu militarrei zuzenduta, baizik eta populazinoa etsitea ebela helburutzat. Izan be, tinko mantentzeko, ejertzito batek herritarren babesa behar dau; ezin zara gerra-tokian egon, zure familia bizia galtzeko arriskuan dagoala badakizu".

Faxisten erasoek Burdinazko Garrikoan zehar posizino menderatzaileak hartzea eben helburu. Maiatzerako, Bizkargi, Sollube eta Lemoatz eurenganatuta zituen. Tontor horreek Garrikoa baino altuago egozan eta, handik azpiegitura osoa kontrolaten eben. "Garrikoari Gaztelu-menditik egin eutsien erasoak ekainaren 11n, hori defentsa-hesiaren gunerik ahu-lenetariko bat zala baekielako". Batailek hiru egun iraun zituen. "Azpiegitura ez

Erasoak hasi ziranerako, herrieta-tik aterateko agindua emonda egoan eta zibil gehienak alde eginda egozan. Josefina Oregiren ama haurdun egoan garai hatan; bera zemendian jaio zan. "Gurasoak Morgan bizi ziran eta, familia asko moduan, Errigoitira joan ziran. Hutsik topau eban lehenengo etxean sartu ziran. Baina Morgako baserria itxi baino lehen, txahal bat hil eben. Zatika ebagi eta zatiok taloa egiteko azpilean sartu ebezan. Soloan zulo bat egin eta altzaria han lurperatu eben. Aitak gauero egiten eban Errigoititik Morgarako bidea, mendirik mendi, okela-zati bila. Erasok amaitu eta baserria itzuli ziranean, ha erabat hutsik egoala topau eben. Ez egoan ez animaliarik, ez lapikorik, ez mantarik... Milizianoek etxeetan eta hartutako guztia Bizkargira eben eroanda. Andrak mendira igoten ziran astoakaz, ea zer berreskuratu ahal eben".

Sabin Aranaren amamak eta gainontzeko senideek gurdi baten sartu zituen balioa eben ondasunak, eta Karrantzarantz abiau ziran. "Bide osoan zehar, amamak ezkontzara eroandako hormako erlojua buru gainean eroan eban, ha gurdian ez apurtzeko. Bestetik, txarri bat eroan eben ezkutauta. Gauean hil eben, musturretik helduta ebela, oihuka egin ez eian. Larrabe-

tzura, Santoñako Hitzarmena sinatu oste-an itzuli ziran. Etxea hutsik egoan baina bonbek ez eutsien kalterik sortu. Etxe ondoan lubaki bat topau eben, eta horma bat, Pikene baserrira arte joana. Metrailadore-habia egoan han. Pikene baserrira sartu eta dana odolez beteta topau eben. Ospitaletzat erabilia zan, antza".

Santander eta Asturiaseko tropak be ibili ziran Burdinazko Garrikoa defendatzen. "Miliziano asturiar batzuk Garrikoko atexketariko bat zaintzen ebilen herriaren sarreran. Bertan hil eta bertan lurperatu zituen", kontau deusku Berazategik. Juan Atxutegik Aranari esandakoaren arabera, 14 urte inguru zituala, ezkutauta egoan Asturiaseko lagun bati lagundu eutsan.



GureGipuzkoa.net | Metrailadore-habia, Unbe mendi tontorrean © CC-BY-SA: Indalecio Ojanguren

*Zuzendaria frankisten
taldera pasau zan,
beragaz defentsa-
hasiaren planoak
eroan zituala*

zan eraginkorra artilleriaren erasoei aurre egiteko; eta are gitxiago, abioen erasoak geldiarazoteko. Garrikoa apurtzea ekainaren 12an lortu eban eta azken batailak hurrengo egunean izan ziran. Defentsa-hesia gainditu eta, inongo oztopo barik, Bilborantz abiau ziran errepidetik eta mendietatik. Datu moduan, merezi dau aipatzea Lezaman Garrikoa defendatzen

*Azpiegitura akastuna
zan, eta erasoak
hasi zirenerako,
ez egoan
artean amaituta*

eben tropen estadu nagusia egoala. Horreetako bat Batailoi Zelta zan, batez be CNTko anarkistek osatzen ebena. Halaber, Gerran hegazkin alemaniar bi lurrera bota ziran Larrabetzutik. Bilbo hartu aurretiko azken batailak Artxandan izan ziran, Herriotzaren Garrikoa bezala ezagututako gunean. Faxistak ekainaren 19an sartu ziran Bilbon.

Protagonistak

*J: "Aitak gauero egiten
eban Errigoititik
Morgarako bidea,
baserria itxi baino lehen
hildako txahalaren
okela-zati bila"*

*B: "Herria soldaduz
bete zan. Armak,
tankeak... ekarri zituen
eta hutsik egozan
etxeetan sartzen ziran"*

*Abarrategiri ogerleko
bat ordaintzen eutsien
egunean, lubakiak
egiteagaitik*

"Aitagaz arrantzan joiala, lagun bat topau eben erre kara eroaten eban azpiko tune-lean. Gizonak egoera nasaitu zan arte emon eban bertan, eta honeek janaria eroaten eutsien. Alde egiten be lagundu eutsien, antza".

Isiltasuna

Sabin Aranak urteak daroaz herriko historia batzen. Isiltasuna topau dau Gerra Zibilaren inguruan. "Gerra bizi ebenak uzkur dira garai horri buruz berba egiteko. Niri eretxiz, Larrabetzun, familien artean ez zan gatazka handirik egon, guztiek ebelako baten bat talde baten edo beste-an. Juanek kontau eustan, faxistek herria hartu ebenean, bertoko batek umeak behartzen zituala alarde militarrek egitera. Baina nor zan ez eustan esan".

Jesus Sustatxa eta Luis Gomez Loiu laztana alkatetako kideak dira, eta honeek be denpora luzea daroe Gerra Zibilak herrian euki zituan ondorioak aztertzen. Halan, dokumental bat prestaten dabilz, garai hatako irudiak eta protagonisten testigantzea batzen dituana. "Faxistak Loiura sartu ziranean, ez eben erresistentziarik topau, berton emakumeak, umeak eta zaharrak baino ez ziralako gelditzen. Gizonak gerra tokian egozan, edo kartze-



GureGipuzkoa.net | Sarrikolea baserri gotortua
© CC-BY-SA: Indalecio Ojanguren

lan". Nicolas Mentxakak kontau eutsen zelan gogoratzen eban berak momentu hori. "Herria soldaduz bete zan. Armak, tankeak... ekarri zituen eta hutsik egozan etxeetan sartzen ziran". Benito Lopategi eta Marcelo Abarrategi loiuztarrak Garrikoko lubakiak egiten ibili ziran, hurrenez hurren 17 urte eta 12 urte zituela. "Abarrategik egunean ogerleko bat emoten eutsiela esan euskun. Espe Rodriguezen aita be ibili zan lubakiak egiten. Maisua zan, eta Liga Komunistakoa. Atxilotu ebenean, 30 urteko espetxe-zigorra ezarri eutsien".

Larrondoko Ikastetxea
ESPERANZA ALHAMA
Lanbide Heziketa



Aurrez izena ematea (zikloak): maiatzaren 28tik ekainaren 8ra
Matrikulak (zikloak): ekainaren 5etik 13ra
Aurrez izena ematea (PCPI): ekainaren 1etik 15era
Matrikulak (PCPI): ekainaren 2tik 13ra
Ate irekiak: maiatzean (8, 15, 22, 29) eta ekainean (5 eta 12), 17:00-19:00

Larrondo 2 eta 4, LOIU (BIZKAIA) e-mail: ealhamal@sarenet.es - Informazioa: 94 471 01 51

Heziketa zikloak: erdi mailakoa eta goi mailakoa

Erdi mailakoa

- Ekipo eta instalazio elektronikoak (2.000 ordu)
- Administrazio kudeaketa (1.300 ordu)
- Merkataritza (1.400 ordu)

Goi mailakoa

- Administrazioa eta finantzak (2.000 ordu)
- Sistema informatikoen administrazioa (2.000 ordu)
- Nazioarteko merkataritza (2.000 ordu)

LHIK (Lanbide Hastapenerako Ikastegia)

- Behe tentsioko instalazio elektroteknikoetarako langilea
- Elektromekanikoa
- Merkataritzako laguntzailea
- Bulegoko laguntzailea

INEMeko ikastaroak

Lanerako prestakuntzako ikastaroak

- Eusko Jaurlaritzak babestutako zentroa

Hobetuz

Gizarte zerbitzuak: 2011n egindako izapideak

Gizarteratze/ekonomia arloko laguntzak eta zerbitzuak

Azalpena	Derio	Larrabetzu	Lezama	Loiu	Sondika	Zamudio	Txorierrri
DBE (Diru-sarrerak bermatzeko errenta)	79 FU	21 FU	30 FU	13 FU	64 FU	92 FU	299 FU
EPO (Etxebizitzarako prestazio osagarria)	24 FU	7 FU	9 FU	0 FU	21 FU	45 FU	106 FU
GLL (Gizarte-larrialdietarako laguntza ekonomikoak)	26.082,56 €	8.101,65 €	10.886,04 €	8.890,80 €	28.077,87 €	28.867,08 €	110.906 €
Gizarte inklusiorako laguntza	3 FU	0 FU	1 FU	27 FU	11 FU	17 FU	59 FU
–Pentsioak: kotizazio gabekoak eta gizarte-ongizateko fondokoak –Inklusioen hitzarmenak							

(*) FU: Familia-unitatea


Desgaitasuna duten pertsonak

Minusbaliotasunak aintzatetsi eta berriz aztertzea	20	16	8	8	20	26	98
–Aparkaleku-txartela							

Nagusiak

- Hainbat izapide: Adineko eta Imersoko bidaletarako eskariak, Telefonikari egin beharreko ordainketa soziala
- Informazioa, tren, metro eta Bizkaibusen bonuei buruz

Etxez etxeko laguntza-zerbitzua



Mendekotasun-egoerak aztertzea



Mendekotasuna dutenentzako diru-laguntzak, familia barruko zaintzetarako



Telelaguntza zerbitzua



- Derio
- Larrabetzu
- Lezama
- Loiu
- Sondika
- Zamudio



Emakumeak

- Genero-indarkeria jasaten duten emakumeentzako laguntza ekonomikoak
- Emakumeak denboraldi batez hartzea
- Lege aholkularitzako zerbitzua
- Tratu txarra dagoen susmatzen bada, ZUTITU arretaren psikologikoaren zerbitzura agintzea
- Familia topagunearen zerbitzua

Etorkinak

- BILTZEN programara agintzea: aholkularitza juridikoa eta soziala

Beste batzuk

- Pentsionista, familia ugari eta langabetuentzako gizarte-bonua bideratzea
- EGAZ Txorierri (Behargintza, lehen), Lanbidera... agintzea
- Familia ugariaren txartela

Umeak eta familia

	Derio	Larrabetzu	Lezama	Loiu	Sondika	Zamudio	Txorierri
GHEZ: GIZARTE-HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA	30 A	7 A	7 A	0	16 A	22 A	82 A
	17 FU	3 FU	6 FU	0	10 FU	14 FU	50 FU
EBALUAZIO, DIAGNOSTIKO ETA ESKU HARTZE PSIKOLOGIKOAREN ZERBITZUA	5 A	6 A	0	0	11 A	0	22 A

(*) A: Adingabeak; FU: Familia-unitatea

Antzemandako arazoak

GIZARTE-HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA

FAMILIAK

- Heziketa-arauak erabiltzeko zailtasunak
- Arazoak familiako harremanetan
- Seme-alabak hazteko zailtasunak
- Komunikazio-arazoak
- Buruko gaitzak

ADINGABEAK

- Eskola-garapenerako zailtasunak
- Buruko gaitzak
- Arazoak gurasoekin
- Trebetasun sozialik eza
- Jarrera disozialak
- Tratu txarra
- Arduragabekeria oinarritzko zaintzetan

Tratatutako arazoak

EBALUAZIO, DIAGNOSTIKO ETA ESKU HARTZE PSIKOLOGIKOAREN ZERBITZUA

ADINGABEAK

- Depresioa Gogoa
- Jarrerari lotutako arazoak
- Estutasuna gurasoen banantzearen ondorioz
- Erabateko herstura
- Ondoeza gaixotasun fisikoaren ondorioz
- Ume-jelosia

Herria Martxan! Martxa Herrian!

t/a: Bestorrene

Arratsaldea da, Derioko herriko plaza ia hutsik dago, baina mugimendua igaritzen da, jendea bertaratzen hasi da. Kamioitxo baten gainean lagun bi datoz berbetan: bata *Txinbo* da, Bilboko neskato pijoa, herrian martxarik ez dagoela dio, bakoitza bere etxean sartuta dagoela beti; bestea *Tximitxe* da, esperantza handiagoa du herrian.

Plazara heldu dira. Jende asko dago aurrean, geldia, isilik. Baina ez du horrela jarraituko. Musika entzun eta zapi laranja jarri dute idunean. Makila bana hartu eta oinez hasi dira, erritmoa jarraituz. Zuberoako erritmoa da izatez, pastoralarena. Plaza erdian zirkulua egin dute, ehun inguru dira eta abesten hasi dira. Bertako *Aita-semeak* eta zuberotarrez *Baratze bat*.

Aurrekoak desegiteko asti barik, batzuk sartu dira plazara baloia daramatela, tokeak eginez. Eta laster beste batzuk, baloi profesionala daramatela. Konturatu orduko, banangoaren soinua entzun da eta jende artean atera dira. Hirunaka edo launaka dantzatzeko hasi dira. Ez genekien hainbestek banangoa zekitenik.

Txinbo eta *Tximitxeren* komentarioen artean, neska gazte eta malgu batzuek gimnasia erakustaldia egin dute. Etorriko den aldaketa ez da makala: Nagusien Etxekoak agertu eta saltsa dantzatzeko

entrenatuta daudela erakutsi dute. "Espontaneo" batek bere "beat box" emanaldiarekin jendea animatzea lortu du, eta, estiloa aldatuz, emakumeen elkartekoek euren dantzei ekin diete.

Trikitiaren soinu eta globoflexia erakustaldiaren ondoren, plazako jendeak *Txoria txori* eta *Maite zaitut* abesten dutela lekua utzi diete Sevillako dantzei. Herri honetan *danerik* dago eta *paraje*.



Martxak jarraitzen duela erakusteko, binaka irteten hasi da jendea, bi, lau... ia ez dago denentzako lekurik plazan. Noiz ikusi dugu hainbeste jende polka dantzatzeko.

Amailerantz goaz. Berrero pastoralaren erritmoa, berrero makil hotsa plazan. *Guk euskaraz* eta *Xalbadorren heriotzean* izan dira entzungai. Hauek ere entseatu beharko zuten ba!

Txinbok eta *Tximitxek* pastoralaren erara agurtu dute ekitaldia:

Txinbo:

"Agur ikus-entzuleak,
herria jarri dugu martxan!
itsuek *be-esan* dezaten
Martxa dago gure herrian!"

Tximitxe:

"Derioko herritarrok,
bi ordu *in-doguz ie*
gu bagoaz txosnetara
hasi *daitela ba jaie*"

Apurka-apurka, ilara luzea desegiten joan da. Amaitu da parte-hartzea, inplikazioa handia izan da. Oraingoan egon ezin izan direnak hurrengoan egongo dira. Herria martxan dagoela argi dago, eta herri honetan martxa dagoela.





SONDIKAKO JAIETAN DIBERTSIOA BAI!

SONDIKAKO



UDALA

Etorri eta
parte hartu

Martínez Zaldueño Doktoa

Mediku estomatologoa
EHLKO Odontologia irakaslea
Pamk EEUJ Protesiak



**Clínica Sondiako
Dental**
*1983tik hona zaintzen dugu zure bizi-irribarra

Protesiak inplanteen gainean
Ortodontziak
Periortodontziak

Golri, 2
48150 Sondiako Bizkaia
Tel.: 94 453 34 40
e-mail: ramonzaldueño2009@hotmail.com
www.euskalnet.net/sondikadental

Txorierri Et., 30
48150 SONDIKA

94 453 35 05
667 78 63 31



ORAIN
GAUTXORI TABERNA
ERREMENTERI KALEAN
GIRORIK ONENA
LAGUN ARTEAN

PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA



auto-escuela SONDIKA

Gidabaimena eskuratzeko izapideak

Irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa

Mateo Bidaurrezaga 2
Telefona 94 471 00 10
48150 SONDIKA Bizkaia

Plaza iturriondo, 2 (goia)
Telefona: 94 445 90 67
48007 Zurbaránbarri - Bilbo

BOST PLANOTAKO OHE ELEKTRIKOA



90 x 190

ORAIN: 249 €

KOLTXOIA + EGURREZKO KANAPEA


Bizkor malgukiak

ORAIN: 349 €



135 x 190

* Inklusiboa ez da berriz



pikolin banatzaile ofiziala

komodin
koltxoí denda

Preziorik
onena
koltxoirik
onena

Aukera zabala
koltxoietan, ehungintzan...

ATSEDEN OUTLET-A
(200 m²-ko erakustokian)

Txorierri etorbidea, 15 (SONDIKA) 94 653 13 35 • komodin@komodin.es



Suak bizirik dirau Sondikan

a: Juanjo Ortiz

Jaiei barikuan emango diete hasiera, iluntzeko 8 eta erdietan. Baina, motorrak berotzen hasteko, umeentzako eta gazte-txoentzako ekimenak egingo dira aurreko orduetan. Era berean, aipatu beharra dago Pentagrama elkarteak soinuaren emandakia eskainiko duela eguenean. La pegatina eta Izargi taldeak musika jarriko diote barikuko gauari.

Zapatua egun nagusia izango da Sondikan. Besteak beste, Pintura Lehiaketa, gazta eta txakolinen dastatzea, eta bilbainadak egongo dira goizean, eta Padel Txapelketaren finalaurrekoa eta finala jokatu-ko dira arrastian. Padel Txapelketa lehenengo aldiz antolatu da aurtan, eta KO erara izango da. Adierazitakoaren arabera, partidak ekaineko asteburuetan egingo dira Artebe kiroldegian, eta bikote irabazleek baino ez dute jarraituko txapelketa barruan. Hau da, partida bat galtzen dute-

San Joan gau magikoa da, eta su garbitzaileak protagonismo berezia du. Aurtan ere su inguruan bilduko dira sondikoztarrak, baina data horren inguruan ere ekitaldi sorta zabala edukiko dute, jai batzordeak egitarau oparoa antolatu baitu herriko jaietarako.



TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

kuragandik gerta

ABOLKUALARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKUAIDATZEAK
SALEKONKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

ALTZORA

Sondikako euskara elkarte

**ENDO PASA
JAIETAN!**

Ekainak 21, eguena

–19:30: Pentagrama Kultur elkartearen emanaldia, Kultur Etxean.

Ekainak 22, barikua

–16:00-19:30: Disko-festa, Gorondagane ikastetxeko Guraso Elkartek antolatua.

–19:30: Bigantxak.

–20:30: Txupinazoa.

–21:00: Tortilla Txapelketa.

–23:30: Kontzertua: La pegatina.

–01:00: Berbena: Izargi.

Ekainak 23, zapatua

–09:00-11:00: Pintura Lehiaketa.

–11:30: Kalejira, Elaiak txistu taldearen eskutik.

Egitaraua

–12:00: Idiazabal gazta eta Bizkaiko txakolinen dastatzea.

–12:30: Apar-jaia.

–13:00: Bilbainadak, Los Txikis taldearekin.

–16:00: "Jon Deuna" I. Padel Txapelketa: finala eta finalurrekoa.

–18:00: Dantzateke, umeentzako dantzaldia.

–18:30: Tiragoma Lehiaketa.

–20:00: Balkoi Apainduen Lehiaketaren sariak ematea.

–21:00: Txahal-okelaren dastatzea.

–23:00: Suak.

–23:30: San Joan sua.

–00:30: Berbena, Akerbeltz taldearen eskutik.

Ekainak 24, domeka

–11:00-15:00: Haurrentzako parkea.

–12:00-15:00: Fanfarrea.

–12:30: Meza eta aureskua.

–13:30: Kopaua, jubilatuentzat.

–15:00: Sukalkia.

–16:30: Mus Txapelketa.

–18:00: Euskal dantzen agerraldia, Gorantzaileak dantza taldearen eskutik.

–19:30: Dj Xaibor.

–22:00: Petardo-sorta.

nak kalera joango dira. Partida bakoitzean, hiru set jokatu dira. Txapeldunek garaikurrak eta kirol materiala jasoko dituzte sarritzat; eta kirol materiala, txapeldunordeek eta hirugarren postuan lotzen direnek.

Balkoi Apainduen Txapelketa ere lehenengo aldiz antolatu dute aurten Sondikan. Ekainaren 1etik 6ra bitartean eman behar da izena liburutegian. Hilaren 9an, 09:00etatik 14:00ak arte, erakustoki bat jarriko da Goiri Erdikoa plazan, eta han jasoko ahal izango dira doan balkoietan ipini beharreko loreak. Parte-hartzaile bakoitzak zenbaki bat idatzita duen txartela jasoko du, eta balkoian jarri beharko du txartel hori, ageriko leku batean. Balkoiak hilaren 18tik 20ra bitartean egon beharko dira amaituta, epaimahaiak egun horietan aztertuko dituelako. Guztira, lau sari emango dira, eta kategoriatan bi hartuko dira kontuan. Lehenengo kategorian familia bakarreko etxebizitzak eta etxe atxikiak sartuko dira. Irabazleari 150 euroko diru-txartela emango diote sari; eta 100 euroko diru-txartela, bigarrenari. Etxebizitza-blokeak beste kategoriatan barruan



izango dira. Kasu honetan ere 150 euro jasoko du irabazleak; eta 100 euro, bigarrenak. Diru-txartelak herriko dendetan gas-tatu beharko dira.

Elementu estetikoak

Balkoi irabazleen argazkiak ekainaren 23an jarriko dira ikusgai Udaletxeko balkoian. Sariak ere egun horretan emango dira. "Lehiaketa honen bidez azpimarratu nahi dugu zein mesedegarria den balkoiak apaintzea, herriaren elementu estetiko garrantzitsuak direlako", adierazi dute Udaletxean. Sua piztu baino lehen, txahal-okela dastatzeko aukera egongo da zaindariaren egunean; txingarrak oraindik piztuta daudela, dantzaldia Akerbeltz taldearekin.

Gau biziaren ostean, domeka goiza etorriko da; jaien azken egunaren goiza, alegia. Haurrentzako jolas-parkea egongo da, eta fanfarre batek herriko bazterrak girotuko ditu. Eguerdian, herri bazkaria egingo da, eta bazkalostean, Mus Txapelketa. Gorantzaileak taldeak dantza-agerraldia eskainiko du, eta jaiak hasi bezala amaituko dira: petardoaren soinuarekin.



“Ez dot uste musikan aritzea baino ogibide hoberik dagoanik”

ARGIA PUJANA | flauta-jotzailea

Jotzeko eta ondo pasetako, Brahms eta Shostakovich konpositoreen edozein sinfonia hartuko leuke. Eta jo dauen lekurik ikaragarriena Leipzigecko Gewandhaus auditorioa izan dala dino. Musikak Txorieritik kanpo eroan dau lezamar hau: Alemaniara, lehenago; eta Bartzelonara, geroago. Argia konde-urian harrapau dogu.

t: Itxaso Marina

Bartzelonara 2006. urtean ailegau zan, Alemanian zazpi urte emon ostein. Juan Crisostomo de Arriaga Bilboko kontserbatorioan flauta ikasketak bukatu eta beka bat lortu eban heziketea Freiburgeko kontserbatorioan osatzeko. Handik Karlsruhe urira joan zan, ikasten jarraitzera. Uri hatan emondako azken urtean irakasle ibili zan Pedagogia Goi Eskolan. “Gurasoek egundoko pazientzia euki dabe nigaz. Aitak unibersidadera joatea gura eban; nik, ez. Eta batzuetan damua azaltzen da, hau oso mundu gatxa dalako... Baina merezi dau, bizimodu ederra be badalako, eta bizipen asko emoten deusuzalako. Benetan, ez dot uste musikan aritzea baino ogibide hoberik dagoanik”.

Argiak probak egin zituan Bartzelonako Lizeoko Akademia-orkestan sartzeko, eta han bekadun aritu zan 2009. urtera arte. Gaur egun, Valléseko Orkestra Sinfonikoko kolaboratzailea da, eta flauta eskolak emoten dauz ikastetxe pribadu baten. Horrezaz ganera, beste lau lagunegaz batera Innova Ensemble haize-boskotea osatzen dau. “2008. urtean, Lizeoan jotn genduala, sortutako taldea da eta kon-

tzertu asko emoten doguz. Lehengo urtean, adibidez, Getxoko Udabarriko Kontzertuetan hartu genduan parte. *Multikulti* gara, tronpa-jotzailea Poloniakoa dalako; klarinete-jotzailea, Alacantekoa; eta fagot-jotzailea, Venezuelakoa. Oboe-jotzailea eta biok euskaldunak gara”. Gustura dago Bartzelonan, bikoteagaz, eta momentuz han gelditzea gustauko litzaio. Uri handi baten bizitzeak aukera han-

diak dakarzala dino: kultura, jentea, ikuskizunak... “Baina kutsadurea be bai. Orain dala gitxi Lezaman izan naz; ha bai aire ederra!”. Behar arloan be, Bilbon baino aukera gehiago dau Bartzelonan; Alemanian baino aukera gehiago be bai. “Euki dodazan barrien arabera, hango orkestra asko ixten dabilz, edo alkarregaz fusione-tan”. Krisialdiaren eragina? “Nire ustez, krisialdia atxakiatzat erabilten da, kultura

Innova Ensemble haize-boskotea



ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean) 48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

arloan murrizketak egiteko. Kultura eta pentsamentua hain inportanteak ez dituan gizartea eregi gura dabe, produktibadeari garrantzia emonda. Eta gizaki egiten gaituen guztia –kultura, zientzia, galderak egitea, sormena...– alboratu gura da. Musikea kulturaren zatia da, eta gure kultura eta historia galtzen bado-guz, nortasuna be galdu egingo dogu, eta lehen egindako akatsak errepikatu egingo doguz”.

Poztasun handiz gogoratzen dauz Alemanian bizi izandako urteak, eta hango egunerokotasuna eta Bilbokoa oso antzekoak dirala esan deusku. “Lagun asko egin nituan han. Are gehiago, askoz errazagoa izan zan Alemanian lagunak egitea Bartzelonan baino”.

Erne

Heziketa klasikoa jaso dau Argiak eta, aurreko lerrootan aitututakoetatik aparte, musikari ibili da hainbat proiektutan; Les Fêtes Joyeuses Freiburgeko taldean, esate baterako. Egitasmo modernoagoe-tan be hartu dau parte: *The Opera Show* eta *Los Miserables*. “Ikuskizun modernoak egitea dibertigarria eta aberasgarria badira be, klasikoak gurago dodaz. Musi-kal baten, adibidez, 100 emonaldi baino gehiago egin daitekez, eta gauero gauza bera errepikau. Kontzertu klasikoari jago-konez, barriz, astero aldatzen da progra-meia eta partitura barriei egin behar deu-tsezu aurre, zuzendari barriari... eta horrek erne mantentzen zaitu”. Dana dala, bizi doguzan uneak kontuan hartu-ta, beharra eukite hutsa pozik egoteko modukoa da; musika munduan be bai. “Hemen ez dago kontratu finkorik, eta erakunde publikoetan lan egitea oso gatxa da gaur egun”. Orain arte suertea izan dauala esan deusku. “Behar batzuk probetara neure burua aurkeztu eta hare-ek gainditu ditudalako lortu dodaz. Baina suertea be oso inportantea da: norbaitek ezagutzen dau zure izena eta musikal bat



egiteko deitzen deusue, eta urte osoan dozu beharra... baina, noski, hurrengoan zer gertatuko dan ez dakizu”. Horregaitik ez da ausartzen epe luzerako planak egi-tera, behar bada. “Nonbaiten behar finkoa bilatu gura dot, inoiz familia sortu gura dodalako, eta egonkortasuna behar da horretarako. Baikorra nazen arren, gatxa ikusten dot gaur egun, eta uste dot inprobisetan jarraitu beharko dodala”.

Musikea ogibide eta grina dau Argiak. Mundu haregaz oso gaztetxoa zala euki eban lehen harremana. Ahiztak pianoa jotzen eban, eta bera be saiatu zan; baina konturatu zan ha ez zala bere instrumen-tua. “Nik flauta edo fagota jo gura neban.

Ikaslea nintzan Larrabetzuko Musika Eskolan eta 11 urte nebazala flauta ira-kaslea hartu eben. Instrumentuagaz saia-tu nintzan eta berehala konturatu nin-tzan neurea zala”. Musikari klasikoa da, musikea maite dau eta izugarri disfrute-tan dau jotzen. Lerro honeetatik musika klasikoaren alde egin dau. “Jenteak gauza aspergarria dan ustea dauka, edo halan esaten jako. Eta bai, egia da protokolo bat dagoala eta isiltasunean entzun behar dala, baina beste esperientzia mota bat da. Arazoa da ez dogula behar beste publizidadarik. Musika klasikoa aurreretxi barik entzunez gero, gauza ikaragarriak topauko doguz”.

“Kultura eta pentsamentua hain inportanteak ez dituan gizartea eregi gura dabe”

“Musika klasikoa aurreretxi barik entzunez gero, gauza ikaragarriak topauko doguz”

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Aislamientos Derio Tabikeak

Pladurrezko sabaiak eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa

Alartza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

t/a: Itxaso Marina

Txoko bateko bazkidea izateak batez ere independentzia handia dakarrela esan digu Jose Antoniok, "ez delako taberna batean egotea bezala. Hemen geure kontura gabiltza eta, inoiz aldi berean koadrila bat baino gehiago bagaude txokoan, nahikoa lekua dago nor bere kasa ibiltzeko". Izan ere, txokoak 117 metro koadro ditu, eta 50 lagun hartzeko tokia. Hiru mahai handi ipini dituzte jantokian, bakoitza gune mugatu batean, eta aldi berean hiru lagun-talde arte egon daitezke han. Mota honetako azpiegiturek duten beste abantaila bat da, taberna edo jatetxeen aldean, txokoan zerbait edatea edo jatea askoz merkeagoa dela. "Kalitateko produktuak hartzen ditugu beti. Supermerkatuen eskaintzak eta publizitatea ondo aztertu, eta produktua merkeago dagoen tokian hartzen dugu, baina beti prezioak alderatuz eta kalitateari lehentasuna emanez". Iaz indarrean jarri zen tabakoaren kontrako legeak ez du iskanbilarik sortu bazkideen artean, eta aho batez onartu zuten txokoan erre daitekeela. Hala ere, Jose Antonioren esanetan, krisiaren eragina gero eta nabariegia da. "2008. urtean, esate baterako, 3.500 jatordu inguru egin ziren txokoan, eta gaur egun gutxi gorabehera 2.300 egingo dira urtean".

Txori Herri txokoa ondo hornituta eta atonduta dagoen topagunea da. Besteak beste, jantokia, barra, sukaldea, unisex komuna eta biltegia dute. Aipatutakoei ez zaie detailerik falta, baina asmoa dute

*Krisiaren eraginez,
nabari jaitsi da
txokoan egiten diren
jatorduen kopurua*

Txokoaren zokoak

Txori Herri Sondikako txokoa 1974. urtean zabaldu zen eta, Jose Antonio Alvarez oraingo presidenteak adierazi digunez, herriko txokorik zaharrena da. Atea zabaldu, eta barrura sartzera gonbidatu gaitu.

laster obrak egiteko eta emakumeentzako komuna eta gizonentzako komuna jartzeko. "Gainean egon behar da. Ni egunero etortzen naiz goizean, eta arazori bakoitzari ote dagoen aztertzen dut. Txokoa garbitzen dut eta birziklatzera eramaten dut eraman behar dena; guk dena birziklatzen dugulako: papera, kartoia, beira,

plastikoa... Hozkailuetan edaririk edo beste ezer falta den ere begiratzen dut, eta eskaerak egiten ditut edo dendara joan". Txokoa mantentzeak lan apur bat dakarren arren, bazkidea izateak ez du ahalegin ekonomiko handirik eskatzen. "Bazkide bakoitzak 170 euro ordaintzen du urtero; beste txoko batzuetan gehia-




**Garmendia
ardoak**

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49



**MODA
INFANTIL**
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefona: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 08

Bazkide egiteko, beste bati erosi behar zaio partaidetza, eta 26 bazkideen oniritzia eduki

go ordaintzen dute. Diru kopuru horrekin eta edariei jartzen zien gainordainarekin nahikoa dugu hileroko gastuei aurre egiteko, eta egin beharreko konponketa txikiak ordaintzeko. Konponketa handia egin behar denean, bazkide bakoitzak dagokion diru zatia jarri behar du”.

Anfitrioia

Txandak ere badituzte ondo antolatu-ta. “Bazkideak hauek apuntatu behar ditu arbelean: bere izena, txokoa noiz eta zein ordutan hartuko duen eta zenbat lagun izango diren. Hamar laguneko bazkide bat egon behar da gutxienez”. Txokoa etxea da, eta bazkidea, anfitrioia. Bera arduratu behar da, beraz, gonbidatuei zerbitzua emateaz eta arauak betearazteaz. “Mahaiko bakoitzak euro bi ordaindu behar ditu txokoa erabiltzeagatik eta garbiketagatik. Oihalezko ezpainzapiak eta mahai-zapiak erabiltzeak ere badu kostu bat, gero garbitzera eraman behar direlako. Era berean, hartzen diren edariak ere ordaindu behar dira”.

Presidenteak, diruzainak, idazkariak eta batzordekide batek osatzen dute zuzendaritza. Txokoa, 50 bazkide daude eta ez da lagun gehiagorik onartzen. “Bazkide egiteko, beste bati erosi behar zaio partaidetza, eta beharrezkoa da 26 bazkideen oniritzia edukitzea. Baina ez da eskubide osoko kidea izango, harik eta ohiko batzarrean berretsi arte”. Ohiko batzarra urtean behin egiten dute eta han gai arruntak izaten dituzte hizpide: gastuak, diru-sarrerak... Zuzendaritzan dabil-tzanak, berriz, bariku guztietan elkartzen dira. Bazkideen profilari dagokionez, gehienbat 40 urtetik 60 urte bitarteko gizonak direla esan daiteke. Baina 80 urtetik gorako bazkideren bat ere badago. “Bazkidea izateko, gizonetzkoa izan behar da, eta adinez nagusia. Emakumezkoak bari-kuetan, zapatuetan, domeketan, jai-egu-netan eta jai-bezperetan sar daitezke txo-kora. Eta enpresa-bazkaria edo afaria bada, edozein egunetan”.



FRUTAK BARAZKIAK

Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel mota
Produktuak zeliakoentzat

Gaztelumendi, 3 - behea
48195 Larrabetzu
94 455 89 19

Sabin Askolizaga
Aseguru agentea
Allianz
609 475 746

Mitxine, 6 behea
48150 Sondika-Bizkaia
Tel: 94 453 18 07
Fax: 94 453 60 27

pro audio
SONIARI ADITUAK

Txoriemendi, 15
48150 Sondika-Bizkaia
944 533 375
www.proaudiosondika.com
jose@proaudiosondika.com

- hi-fi
- nabigazioa
- telefonía
- segurtasuna
- lehiaketa
- pertsonalizazioa

urel
Psicología Social
Psicología - Pedagogía - Logopedia
URSULA TOMÁS ALMAGRO
645 147 982
Mitxine, 3 behea • 48150 Sondika
www.urel.es • urel@urel.es

VICTOR
HARATEGIA • URDAITEGIA
ARTISAU-ELABORADORA

Okeia erabiltzen dugu:
odolostak, txorizoa,
bistorta, solomak...
Plater aurrekoizatu

Gorri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17



POLITEKNIKA IKASTEGIA TxORIERRI S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larbide Heziketa eta Bigarren Heziketarako Ikastetxea

Untzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEFRIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ATE IREKIEN JARDUNALDIA
(18:30etatik aurrera)
Apirilaren 19an
Maiatzaren 3an
Ekainaren 5ean

BATXILERGOA
• Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Mekanizazio Teknika

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Teknikaria
• Produktzio Programatzeko Teknikaria
• Automatizazioa eta Informatikako Sistemetako Teknikaria
• Salmenten eta Merkataritza esparruen Kudeaketako Teknikaria
• Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Teknikaria

Atlasen semea

Rubén Glerak *Titan Desert* txirrindularitza lasterketa bukatu du Marokon



t: Gaizka Eguskiza / a: R.G.

Greziako mitologian, titanak gizonezko jaungoiko boteretsuak ziren. Haietako bat Atlas izan zen, eta gaur egun Marokoko mendi-kateak hartu du bere izena. Eta non eta bertan egiten da urtero Titan Desert txirrindularitza lasterketa. Esaten da bizikleta arloko Dakar rallya dela, eta normalean oso txirrindulari ospetsuek hartzen dute parte, adibidez Roberto Heras edo Óscar Pereiro. Baita 49 urteko Rubén Glera zamudioztarrak ere, eta poz-pozik itzuli da. "Esperientzia zoragarria izan da, eta oso gogorra ere bai", adierazi du. Rubének 600 kilometro inguru egin ditu Saharako basamortuan, sei egunean, hau da, 100 kilometro egunean.

"Nik primeran pasatu dut, ez dakit masokista naizen, hainbeste sufritu dudalako. Fisikoki ondo ibili naiz. Lehenengo egunean gihar bikiak igo zitzaizkidan, baina masajistak esan zidan hegaldiaren ondorioa izango zela ziurrenik. Horretaz aparte, ez dut izan arazorik, ez zorabiorik, ez beharorik, ezta zauririk ere, beste txirrindulari askori gertatu zaien moduan. Eta gero eta hobeto sentitu naiz. Oso ondo bukatu nuen lasterketa, eta egun gehiago iraun balu, agian irabaziko nukeen (kar, kar)". Azkenean, 108. postuan amaitu zuen Rubének (415 txirrindularik hartu zuten parte).

Arazo fisikorik ez, baina hainbat oztopo mekanika arloan, ordea. "Etapla batean hiru zulaketa izan nituen eta kamara apurtu egin zitzaidan. Ordubete eman nuen geldirik eta oso etsita ibili nintzen. Erratz-

*"Primeran pasatu dut,
ez dakit masokista
naizen, hainbeste
sufritu dudalako"*

AM
FORMACIÓI Y TRADICCIÓI

—HAGIELE ESKOLA
—MAGIA DUTIAK
—AZTERKETA OFIZIALAK
—EGITEKO PRESTAKUNTZA
—ONE-TO-ONE ESKOLA
—PRESTAKUNTZA ENPRESETAN
—ESKOLAZ KANPOKO KLASEAK
—ITZULPEN ZERBITZUA

www.am-formacion.com
Garaioitza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

info@am-formacion.com
Erremerterri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 00

ATARRABI

Erremerterri, 14 - 48150-Sondika
Tel. 944 531 928

Caixa Rural
Txorierri IMQ AEGON

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella

Mitxine 6, bajo - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885 - www.mtxorierri.com



autoa gertu nuen eta lasterketa uzteko zorian egon nintzen, baina azkenean bizikleta konpondu eta aurrera jarraitu ahal izan nuen". Matxurak direla-eta, sailkapena alde batera utzi behar izan zuen Rubének eta bere burua gainditzeari ekin zion. Esate baterako, bosgarren etapan gogor ibili zen eta onenen artean bukatu zuen, 55. postuan, alegia.

Giro ederra

Rubenentzat luzeak izan ziren egunak basamortuan. Goizean goiz-goiz altxatzen zen (05:00etan), gosaltzeko eta etapa behar den moduan prestatzeko (ura hartu, sinadura-kontrolatik pasatu...). Lasterketa 08:00etan hasten zen eta normalean 14:00-15:00ak arte luzatzen zen. "Geroago bazkaltzen nuen, goserik izan ez arren", eta arratsaldean masajea eta atsedena hartzen zituen. "Askotan lehiakideekin ibiltzen nintzen. Lasterketan bizi dituzun uneak oso gogorak dira, eta, ondorioz, gure arteko harremanak, askoz sakonago-



ak". Titan Desert lasterketa erronka handia da eta parte-hartzaile gehienek abentura ederra izango balitz moduan hartzen dute.

Inguruko errealitatearen berri hartzeko denbora ere izan dute. "Oso hunkigarria da Saharakoak zelan bizi diren ikustea. Ni kexaka ibili nintzen arazo mekanikoak izan nituelako, baina etapa bukatzen zenean nahi beste janaria hartzeko aukera nuen, baita dutxa edo ura ere. Denetarik nuen; eurek, orde, ezer ez. Umeak bidearen alboan jartzen ziren eta eskua luzatzen

zuten guk bostekoa emateko. Eta egiten genuenean, poz-pozik jartzen ziren. Pribilegiatuak gara eta hara sasi-oporretan joaten gara". Ildo horri jarraituz, Rubének erabaki du Saharari laguntzeko programa batean parte hartzea. Programaren bidez mendiko bizikletak bidaliko dituzte hara.

Aurtengo erronka bukatu egin zaio Rubéni, baina datorren urtean berriro itzultzeko asmoa du. Atsedean hartzeko denbora handirik hartu gabe, bizikletaz ibiltzen hasi da berriro. Elkarriketaren egunean Rubének 60 kilometro zituen eginda. Ez du bere burua heroizat edo tiantzat hartzen, baina badaki "zerbait berezia" egin duela. Eta hori saritzeko herrikoek harrera egin zioten aireportuan, eta hurrengo egunean, bazkaria. "Horrek esan nahi du maite nauten lagunak eta senideak ditudala, eta hori nahikotxo da". Titanak jaun eta jabe ibili ziren Urrezko Garaian, Greziako mitologiaren arabera. Rubének euren lekukoa hartu du, Atlasen seme duina da.

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unisex ileapaindegia
Estetika
Ondutegi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK

lasai

Luis M° Asensio
Osteopata

Larribarri, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

Carnicería
Charcutería
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO
Eskerrik asko
etortzeagatik

Etorkizuna hidrogenoan?

t: *Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria*

H₂O, uraren formula ezaguna; hidrogeno atomo bi, eta oxigeno atomo bat. Hain preziatua dugun likido hau kudeatzea inportantea da, zalantza barik. Ur-eskasiak arazo larriak sortzen ditu, askotan ura geuk kutsatzen dugu, eta noski, ur barik ez dago bizitzarik. Baina ez da bizitzarako inportantea soilik, gaur egun ura erabilita energia hobeto kudeatzea ere badagoelako.

Energia berriztagarrien arazoetako bat haien aldakortasuna da. Energia eolikoa, esate baterako, haizea dabile-nean baino ezin dugu erabili, eta haize handiegia dabilenean ere arazoak sortzen ditu. Energia fotovoltaikoa egunaren eta urtaroaren zikloaren eta eguraldiaren arabera da, eta energia hidroelektrikoa ibaien emariaren menpe dago. Batzuetan, soberakinak; beste batzuetan ez da nahikoa... Zer egin dezakegu energia soberan dagoenean, hura erabiltzeko? Eta faltatzen denean?

Gaur egun, soberakinak aprobetxatzeko martxan jarri ditugun sistemen etekina ez da oso ona, eta, horregatik, zenbait ikerketa-lerro zabaldu dira, ara-

zoari irtenbideak emateko. Horietako bat ura erabiltzea da. Eolikoa, adibidez, denak emanda dagoenean, soberan dugun argindarra erabil dezakegu uretatik hidrogenoa lortzeko. Eta azken hori presio handiko tanketan edo hidruro bidez metatu (hidruroak sustantzia kimikoak dira, hidrogenoak eta metalek, elkartzen direnean, osatzen dituztenak). Hidrurook eta tankeok nahi dugun lekura eraman daitezke. Eta hidrogenak ere (gasolindegiak bezalakoak, baina hidrogenoa saltzen dutenak) aton daitezke, hidrogeno-autoak hornitzeko, kasu.

Bestetik, hidrogenotik argindarra lortzeko, erregai-pilak erabiltzen dira. Hidrogenoa oxigenoarekin elkartzen da, eta emaitza argindarra eta ura besterik ez da. Ondorioz, ez da CO₂ edo beste gasik atmosferara botatzen. Horrelako sistemak ere aproposak dira, leku bakar-tuetan energia edukitzeko. Ez dute kutsatzen, eta masa eta bolumen-unitateko duten energia oso handia da. Auto elektrikoei dagokienez, bateriak erabili beharrean, halako sistemak erabil daitezke energia metatzeko. Lortzen den autonomia gero eta handiagoa da eta, gainera, aipatutako hidrogeneretan minutu batzuk baino ez dira eman behar, depositu osoa betetzeko. Bateriak erabilita, ordea, ordu batzuk eman behar dira.

Lehen esan bezala, zenbait ikerketa-lerro zabaldu dira gai honen gainean. Batzuk hobeak dira zeregin batzuetarako, eta beste batzuk, beste zeregin batzuetarako. BTEK Teknologiaren Interpretazio Zentroan, hidrogeno-tailerra garatzen gabiltza ZERO Hytechpark Europako proiektuarekin elkarlanean. Datorren urtean, zer den eta zertarako erabil daitekeen ikusi ahal izango duzue bertan.



ERREKA
LOND
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

TURREGOITI
JATETXEA

Laurola etorbidea, 27
48180 Lailu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoitii.com

elekma

LARRATZORREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSAK

Isaherengo markak • Plazaziki onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txoriari etorbidea, 25-3 N • 48180 Lailu
T: 944 539 232
www.elekma.es

Euskararen autobideak hiruzpalau karril/errei ditu

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Euskara, euskara batua baino zabala goa da. Aiko perpausa polita ideia lausok gardentzeko.

Euskararen autobideak hiruzpalau erreiri ditu. Berez, urte askotan ez dugu izan autobiderik. Lurraldeka antolatutiko errepide sareak eduki ditugu, Zuberera han, bizkaiera hemen.

1968an Euskaltzaindiak autobide batua zabaldu zuen Arantzazuko harriz. Harrezkero, herri nahiz herrixketatik ibiltzeko ziren bideak ere autobidera jaso ziren. Gaur egun, euskararen autobidea hiru karrileko da: ezkerreko azkarretik euskara batuak dihardu; erdikotik euskalki jasoak, eta eskuinekotik lekuan lekukoak. Ezkerreko *dute* autoa dabil; erdikotik *dabe* beribila; eta, eskuinekotik, Txorierriko autobidean, *deurie* kotea.

Zenbaitek gurako lukeena da, lekuan lekuko berbeta autobidetik atera eta kaminora bidaltzea, baina, gaurkoz, herri, nukleo, erregistro batzuetara ez da autobiderik iritsi, lehengo errepide, gurbide, bidezidorretatik dabilta.

1968an, euskara batuko auto turboduna abian jarri aurretik, euskal lurretan



ziren Frai Bartolome Merzedesa, Kardaberaz Volvoa eta Axular Rolls Roycea. Zergatik litzateke onuragarri euskara batuko autoak besteei esatea: Zaudete gelditi! Darraitela hirurek. Geroak esango du karril bakoitzak noraino eta nola iraungo duen ze, idatziak idatzi, ahozkoa

irakasle borondatetsu eta filologo jakitunak uste baino konplexuago eta iraunkorrago da, zorionez.

Ez dezagun behin ere ahaztu, edozelan ere, autobidean erdarek gainetik pasatzen gaituztenean, euskal gidariok tuneleko argiak piztu beharko ditugula.

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiak ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Sello - Txangoak - Animalien heziketa

Telefona:
IBON - 659 90 75 88

Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

KIMA

Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gaitortza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK
ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONOA/FAX: 94 455 64 87

GOIKO TABERNA

Taberna-jatetxea
Emiliano

- Menu berriak asteburuetan
- Ezkerreko platerak
- Itxialdi asteburuetan
- Eguneko menua eta karta
- Jauziak eta esportak
- Jantoki zabala

B.º Gaitortza, T.º Títo, y Fax: 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA • Bizkaia

LEJARRENE JATETXEA

Gaitortza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

48196 LEZAMA Bizkaia

S.A.T. LEGU

RENTALIZASINTZE ETA BESO-LENDAK

Fu: 94 455 64 17

Tel: 94 455 61 98



Txokolatezko izozkia

CookSmart liburuko errezetatik moldatua

Osagaiak:

- Harrotzeko esnegaina: 300 ml
- Esnea: 2 koilarakada
- Azukre hautsa: 50 gr bahetu
- Bainila esentzia: 1/2 koilarakada
- Txokolatea: 125 gr, zatikatua
- Sukaldatzeko esnegain likidoa: 2 koilarakada
- Txokolatezko saltsa: zerbitzatzeko (aukerakoa)

Prestateko errea:

Irabiatu harrotzeko esnegaina eta esnea, harrotu arte. Gehitu azukrea eta

bainila esentzia. Jarri nahasketa hori izozteko ontzi batean, eta sartu izozkailuan 30 minutuz (edo masaren ertzak gogortu arte, bestela).

Urtu txokolatea eta esnegaina kazola batean sukaldatzeko, eta irabiatu egurrezko koilara batez, harik eta erabat urtuta eta leun egon arte. Baztertu eta hoztu. Jarri izozturiko krema bol baten. Gehitu urtutako txokolatea, eta nahastu sardexka batez izozkiarekin arin. Jarri lortutakoa izozteko ontzian, estali eta izoztu.

Zerbitzatu aurretik, bigundu izozkia 20 minutuz hozkailuan. Nahi izatekotan, txokolatezko saltsa gehitu ahal zaio.

Brokoli, azenario eta arto entsalada

Osagaiak:

- Brokoli bat
- 2 azenario
- Orioa
- 2 katilukada arto
- Ozpina
- Gatza

Prestateko errea:

Jarri ura irakiten, gatza botata. Irakiten hasten danean, bota brokolia, adartxutan, eta azenarioa, dadotxutan. Egosi dana, 5 minutuz. Kendu ura eta freskatu ur hotzetan. Nahastu artoa, brokolia eta azenarioa eta azkenik, bota gatza, ozpina eta orioa.



Ele-apaindegia
Ma Antonia Llodio
Txoriemiko etortidea, 8
Tel: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**hotela
jatetxea
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra


Arbolantxa kalea, 8 - 1. esk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 665 70 33 12

**OSKARBI
fotografoak**
JOSEBA APEZETXEA

TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL: 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@cuskalnet.net

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia



Berba zaharrak

Ezetz asmatu antzinako berbek zer esan nahi duten.

1. Txoline
2. Jakana
3. Irisadorea
4. Txitxirri
5. Pizpitie
6. Anpulua
7. Firue
8. Ustrukue

- A) Deabrua
- B) Arropetarik zintzilik agertzen diren hari-txoak
- C) Malkoa
- D) Saltsera
- E) Helduleku edo kirtena duen kikara. Astadun katilue
- F) Ortzadarra
- G) Jaten ez duen umea
- H) Iragaztontzia, koladorea

ERANTZUNAK: 1E, 2G, 3H, 4A, 5D, 6C, 7B, 8F

Sudokua

		5		7		2
		9	3		6	7
8				2		5
6		2		7		5
		8				6
9						
				6		9
						1
	2	6				

4	5	8	1	3	9	2	6	7
3	9	2	8	7	4	6	1	5
7	6	4	2	9	1	3	8	5
1	2	3	8	4	6	7	5	9
9	7	2	6	5	4	1	3	8
6	4	2	1	7	3	5	8	9
8	7	3	4	2	9	1	6	5
2	1	9	3	5	6	7	4	8
4	6	5	8	1	7	9	3	2

ALI

EGUNEKO MENUAK

ESPEZIALITATEA, TORTILLAK

Lehendakari Leizaola Plaza, 6
48170 ZAMUDIO
Tel.: 94 452 04 68

BAR BIDE-BI

Zamudio

Aukeratu zurea!

Gozzeko 5etatik aurrera zabalik

Gosari bereziak

Telefona: 94 452 20 48

Leizaola Lehendakaria plaza, 3

BIDE-GORRI

CAFE-BAR

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Erakusketak

Derio

- > "Olio eta akuarela pinturak", Itxaso Zubiaren eskutik. Ekainaren 4tik 22ra, Kultur Birikan.
- > "Ibaialde". Ekainaren 5etik 12ra, Kultur Birikan.
- > Aeromodelismo erakustaldia. Ekainaren 9an, 17:00etan, Seminarioko pistetan. Subyke klubak antolatua.
- > Eskola-agenda 21. Ekainaren 11tik 17ra, Kultur Birikan.

Zamudio

- > Argazkilaritza ikastaroko ikasleen lanak. Ekainaren 8tik 29ra.

Hitzaldiak

Zamudio

- > Titan Desert proba, Ruben Gleraren eskutik. Ekainaren 1ean, 20:00etan, Zamudiotorren.



Ikuskizunak

Derio

- > *La hora de la fantasía* antzezlan. Ekainaren 2an, 19:00etan, Gurea Aretoan. Sutondoan elkarrekin antolatua.
- > *Midnight in Paris* zine-foruma. Ekainaren 6an, 19:00etan, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak eta Literatura tailerrak antolatua.
- > IV. Antzerki Topaketak. Ekainaren 8an, 18:00etan, Gurea Aretoan. Kukuke antzerki taldearen eskutik.

Larrabetzu

- > 80 egunean zine-foruma. Ekainaren 28an, 18:30ean, Anguleri Kultur Etxean. Lesbianen, gayen eta transexualen Egunen haritik.

Irteerak

Zamudio

- > Ubidea-Urkiola. Ekainaren 10ean, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Kostaldea. Ekainaren 14an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lezama

- > Olaetako baso-trenbidea. Ekainaren 17an, Zorribike elkarrekin antolatua.
- > Samiño-Izazpe. Ekainaren 17an, Gailur mendi taldeak antolatua.

Kirola

Derio

- > Esku pilota Txapelketa. Ekainaren 2an, 10:00etan, frontoian. Atxiki taldeak antolatua.
- > Kirolari ateak zabalik. Ekainaren 2an, 11:00etan, frontoian.
- > Taekwondo Opena. Ekainaren 3an, 11:00etan, kiroldegian. Doyan klubak antolatua.
- > Psikomotrizitate eta Kirol anitzeko Campusak. Ekainaren 25etik 29ra. Izena ematea: jokatz.com. Gurasoen elkarrekin antolatua.

Zamudio

- > Kirolari ateak zabalik. Ekainaren 2an, 18:00etan, eskola zaharrean.
- > Plater-tiroko saioa. Ekainaren 30ean, 10:00etan, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Ehiza elkarrekin antolatua.

Musika

Derio

- > Musika eskolako ikasleen kontzertua. Ekainaren 5ean, 19:30ean, Kultur Birikan.

Lezama

- > Ekidazu abesbatza. Ekainaren 16an, eguerdian, eskolan.

Larrabetzu

- > Musika eskolako ikasleen kontzertua. Ekainaren 14an, 19:00etan, Andra Mari elizan.



Bestelakoak

Derio

- > Truke azoka. Ekainaren 3an, 09:30-14:00, Sollube kalean. Txoriberri elkarrekin antolatua.
- > Dantzaldia. Ekainaren 17an, 18:00etan, frontoian. Erretiratuen elkarrekin antolatua.
- > Agenda 21. Ekainaren 26an, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.

Zamudio

- > Dantzaldia. Ekainaren 20an, 18:00etan, Kanpoko frontoian. Erretiratuen elkarrekin antolatua.

Lezama

- > Batzarra, eskolaren urteurrenaren haritik. Ekainaren 8an, 18:00etan.

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zamudio Berriak
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txorierri etorbidea, 9 - Loria / Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika one entzun eta futbollean jokatu, etorri zaitzez Trippya, Derioa

Behoko Kalea Baxo
DERIO

LIBURUDENDA PAPERDENDA

ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bazkaria)

Txorierritarron altxorra



Parte hartu!

Zatoz Zamudio Berrira



2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK

204.000 eurotik aurrera
(GARAJEA ETA TRASTELEKUA BARNE)

Etxea arrazoizko prezioan

erosi nahi baduzu

Deitu...



Vivienda y Gestión

** Etxebizitzak, kostaprezioan. Etxebizitzak DERION eta USANSOLON ere bai*

Tel.: 94 439 90 49

www.viviendaygestion.com